

Axularren itzala



Joseba Aurkenerena Barandiaran



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN

Axularren itzala

*Ene emazte Begoñari, Irandatz eta Etxahu semeei
egunero aurrera egin dezadan ematen didazuen
bizi-indarra, bihotzez eskertuz.
Maritxu eta Pepitari. Musu bana.*

AURKIBIDEA

SARRERA

AXULARREN ITZALA

DONOSTIA SUTAN

HUNGARIAKO SOLDADUA

NIK DEBRU DAKITA! (1)

BIZARGINAREN INTXAURRA

JOSETXOREN LANBRETA BERRIA

SOLDADUSKAREN KONTUAK

PIERRE TARDÉ-REN AMETSA

SOINUJOLERAREN PATU GAIZTOA

BELARRETAN

EUSKARAREN ARGILUNAK

ALTZATEKO JAUNAREN IRRINTZIA

AXULAR HANDIAREN HOBIAN

KARTA-BOTATZAILEAREN IGARKIZUNA

TXIRRINDULARI TREBEAK

SHALA JAUREGIKO ANDEREA

AITAREN NEGOZIO BILERA

SUGAARREN ITZULERA

GENEVIÈVE ETA PAXKAL

IPUIN IRAKURKETA IZABAKO HILERRIAN

LANDARBASOKO LEIZE-ZULOAN

SARRERA

Izate honetan badira unibertso paralelo aunitz, herri bakoitzak bere unibertsoa garatzen baitu. Haatik, unibertso horiek ez daude isolaturik, beraien artean lotura ugari baitira. Elkarri eragiten diote eta ezberdinak diren arren, den-denek erro berberak dituzte: amodioa eta gorrotoa, bakea eta guda, adiskidetasuna, elkartasuna, jelsia, bekaitza, herra... eta gainerako giza pasio guztiak. Eta hamaika unibertso horien artean, bada euskal unibertso bat, euskaldunok milurtekoz milurteko, mendez mende, urtez urte, egunez egun, unez une... eraiki, eraikitzen duguna.

Liburu honetan azaltzen diren hogeit hamar ipuinak euskal unibertsoan garatzen dira, garai eta herrialde ezberdinetan. Badira XIX. mendean, aro napoleonikoaren zorigaitzoko garai haietan gauzatzen direnak, XX. mendean gertatu zirenak edota gerta zitezkeenak, eta baita XXI. mende berri honetakoak ere. Era guztietako gertaerak eta ekintzak korapilatzen dira, gure historiara letra larriaz igaro direnak eta letra xeheaz idazten diren eguneroko kontu tikiak. Denetarik dago. Zazpi herrialdeetako eskualde, herri, ibai eta hiriak dira ipuin hauen agertoki naturala.

Gure mitoak ere, nabarmen azaltzen dira istorio hauetan: Sugaar, sorginak, mamuak, Altzateko Jauna, Shalako Anderea,... baina Axular da, inolako zalantzarik gabe, liburu honi batasun eta kohesioa ematen dizkion pertsonaia. Deabruak kendutako itzalaren xerka ibili omen zen urte luzetan. Batzuen ustez, itzalik gabe hil zen. Besteren ustez, ez zen hil, beste mundu paralelo batera igaro baizik. Eta azken hauen irudikoz, mundu paralelo horretan itzala berreskuratu omen zuen. Desagertu aurretik, Gero liburu miresgarria utzi zigun testamentu gisa. Badira, liburu honen segidako bigarren liburu bat idatzi zuela defendatzen dutenak. Fabula edo errealitatea, gauza da gaurko euskaldunon eskuetara ez dela halako bigarren libururik inoiz iritsi.

Itzala berreskuratu zuen Axular itzala ezin berreskuratuz dabilen Euskal Herri gaixo honen antitesia litzateke. Gure ama-lurraren itzala berreskuratzea biharko euskal belaunaldien eginkizunik handiena izanen da. Eta bitartean, iraun beharra daukagu, ezin baitugu besterik egin. Eta ez da gutxi. Axularren itzalak babes gaitzan euskal unibertsoan bizi garen orok.

Amai dezadan 1921ean, Jean Barbierrek Gure Herria aldizkarian argitaratu zituen bertsoak lerro hauetara ekarriz:

AXULARREN ITZALA

*Zuhaitz handiak, lore ttikiak berekin dakar itzala,
nahi bezenbat argitugatik, gizon orok hala-hala!
Itzalik gabe, aditua naiz, aingeruak ditezkelak...
Huna non dioten Axularrez itzal gabe bizi zela!
Sara herrian, nere anaiak, eskuak elgarri guk har,
Gure bihotzen erdi-erditik gora guziek Axular!!!*

*Jainkoarenak hartu ondoan, diote, Axular jaunak
Salamankan hartu zituela eskolak... Deabruarenak!
Saritzat zer utz Galtxagorriri gure aphez eskualdunak?
Utzi ziozkan aztaparretan... zituzten itzalak denak.
Sara herrian, nere anaiak, eskuak elgarri guk har,
Gure bihotzen erdi-erditik gora guziek Axular!!!*

*Itzalik gabe, ordutik harat, bizi zen beraz herrian,
aphez saindua, handi egina, orotan Eskual Herrian.
Orori beha, oro zakizkan, oro zahartzen agerian...
Eskuara zuen gora altxatu, hari doakon neurrian,
Sara herrian, nere anaiak, eskuak elgarri guk har,
Gure bihotzen erdi-erditik gora guziek Axular!!!*

*Itzalik gabe hura bezala, nahi girea, anaiak?
Gure Axular bezenbat garbi, nahi girea guziak?
Galtxagorriri, harek bezala, utzi... erdaldunkeriak,
aztaparretan utz deabruari beraren kaskoinkeriak!
Sara herrian, nere anaiak, eskuetan basoak har!
Gora Ithurri, Elizanburu! Gora guziez Axular!*

DONOSTIA SUTAN

1813ko udaren hasierarako Napoleonen soldaduak erretiradan ziren fronte guztietan. Hala eta guztiz ere, zenbait hiritan, Iruñean eta Donostian kasu, gotorturik jarraitzen zuten. Rey jeneral frantsesak, hiru mila eta bostehun soldadu zituela, Donostiako gotorlekuaren defentsa hartu zuen bere gain. Soldadu kopuru honi gehitu zitzaizkien Donostian babestu ziren Foyren dibisioko zazpiehun gizonak. Defentsarako batailoi bat San Bartolome komentuko gainean kokatu zuen, berrogei bat soldadu Santa Katalina zubia babesten eta hogeita bost gizon Santa Klara Klara uhartean bertako kapera gotortu ondoren. Donostia gotortuan babestu aurretik, harresietatik kanpo zeuden San Martin eta Santa Katalina auzoak errearazi zituen.

Ekainaren hogeita zortzian, Mendizabal jeneralaren gidaritzapeko armada espainiarra Donostiara hurbildu zen. Honen agindupean zetozen Ugartemendia koronelaren menpeko hiru batailoi gipuzkoar eta bizkaitarrez osaturiko bizpahiru batailoi.

Hogeita bederatzian, San Bartolome hartzen ahalegindu ziren, baina alferrik, ez baitzuten artilleriarik horrelako eraso bat ongi burutzeko. Hori ikusita, Donostiara ura zeraman urtegia hautsi zuen eta setioari hasiera eman. Bitartean, Pasaia eta Getaria hartu zituzten.

Uztailaren hiruan, ingeles itsas-armada iritsi zen. Donostiako portua blokeatzeko asmoa zuen. Ingelesek hogeita sei kanoi eta zortzi mortero ekarri zituzten.

Uztailaren bederatzian, ingelesez eta portugaldarrez osaturiko armada aliatua iritsi zen. Graham jenerala zen armadaren burua. Jeneral honek bere gain hartu zuen Donostiaren setioa. Horrela izanik, Mendizabal jenerala eta bere ostea, Donostia ingelesten esku utzirik, Bidasoa aldera borrokatzera abiatu ziren. Handik zenbait egunetara, Hernani hartu berria zuen Wellington jenerala ailegatu zen eta berari eman zioten Donostia hartzeko agindua. Berehalaxe, hiri gotortua hartzeko plan bat burutu zuen. Itsasbehera baliatuz, Urumea ibaiaren aldeko goierako hamalau metro zuen harresian zulo bat egin eta bertatik sartu. Hauxe zen bere asmoa. Horretarako hogeit hamar kanoi kokarazi zituen Txofreko dunetan. Bertatik harresia bonbardatu eta zuloa zabaldu egin nahi zuen. Hori eginda, hamalauan Pirinio aldera abiatu zen bertako armadaren burutza hartzeko.

Uztailaren hamabostean, San Bartolomeko gaina eraso egin zuten, baina azkenean, atzera egin behar izan zuten, muinoan ehun eta berrogeita hamar soldadu hilik utzirik.

Uztailaren hamaseian, etengabeki bonbardatu zuten San Bartolome komentua, eta ondorioz sutan utzi zuten.

Uztailaren hamazazpian, San Bartolome komentua defendatzen zuten frantsesek hura utzi eta San Martin auzoko hondakinetan babestu ziren. Horixe izan zen aliatuek Donostiako gotorlekua hartzeko espero zuten momentua, baina artilleria eta infanteria barra-barra erabili bazituzten ere, lau orduko gatazka odoltsu baten ondoren, atzera egin behar izan zuten.

Hemezortzitik hogeira, bi egunak barne, aliatuen artilleriak etengabe zigortu zituen Donostiako harresiak.

Uztailaren hogeita batean, Graham jeneralak errendizioa eskatu zion Rey jeneral frantsesari, baina honek ez zuen horretaz hitz egin nahi izan.

Hogeita biau, aliatuen artilleriak Urumea aldeko harresian, Amezketa eta Hornos izeneko dorreen artean hain zuzen, berrogeita hamar metro luze zuen bretxa edo zuloa egin zuen. Ordurako Wellington jenerala itzulia zen Pirinioetatik eta setio lanak bere gain berrartuak zituen. Azken honen aholkuei jarraituz, hogeita hirurako Hornos eta San Telmo dorreen arteko harresian hamar metro luze zuen bigarren bretxa bat zabaldu zuten. Egun berean, suak bretxa ondoko lehen etxeak hartu zituen. Hiri barruan ia urik ez zutenez gero, gaizki samar ibili ziren sutea itzaltzeko. Gaur boulevardra dagoen istmo edo hondarrezko pausu estuan babesleku bat eraiki zuten hurrengo eraso bertatik egin ahal izateko.

Uztailaren hogeita bostean, bigarren erasoaldi handia burutu zuten. Hornabekeko beheko aldea lehertu zuten bertako defendatzaileen artean laborria sortaraziz. Huraxe izan zen erasoaldi handirako seinalea. Bi mila soldadu hondarrezko pausu estuan egindako babeslekutik irten eta harresira hurbildu ziren defendatzaileen metraila desafiatuz. Zurriolatik lehen bretxara sartzen saiatu ziren, baina alferrik, frantsesen artilleriak izugarritzko sarraskia sortu baitzuen ingelesen osteetan. Osora ehun bat hildako eta lauhun bat zauritu eduki zituzten. Frantsesen aldetik, berriz, hemezortzi hildako eta berrogeita bederatzi zauritu.

Abuztuaren hamabostean, frantsesek San Napoleonen eguna handikiro ospatu zuten. Urgull mendiko gazteluan Vive l'Empereur zioen suzko txartela ezarri zuten.

Hogeita seian, Wellingtonek berrehun bat gizon bidali zituen uhartea hartzera. Berehalaxe menpean zuten. Bitartean, eta etengabe, hirurogeita hiru kanoik Donostia bonbardatu zuten.

Hogeita hamarrerako, frantsesen artilleria ia osoa hondatuta edo zerbitzutik kanpo zeukaten.

Abuztuaren hogeita hamaikan, hirugarren eta azken erasoaldi handia burutu zuten. Eguna ilun samarra esnatu zen, goiz-goizetik hodei beltzak eta laino handiak izan baitziren nagusi. Hori dela eta, goizeko zortziak arte ezin izan zuten artilleria erabili. Ordu horretatik aurrera ingeles artilleriak ez zuten atsedetik hartu. Hamabietan itsasbehera zen eta horretaz baliatuz bretxatik sartu nahi zuten. Hori gauzatzeko, hamaikak aldera, infanteriak eraso egiteari ekin zion, bretxara behin eta berriro hurbilduz. Haatik, frantsesek ez zieten zulotik sartzen utzi. Baina ingelesek erasoaldi hura galdutzat ematen zuten momentuan ustekabeko handia gertatu zen. Bonba galdu bat frantsesek bretxa atzean zeukaten bolborategian erori zen eta sekulako eztanda sortu. Hirurehun bat soldadu frantses txiki-txiki eginda gelditu ziren eta bretxa ingurua defentsarik gabe geratu. Rey jeneralak etxez etxeko eta kalez kaleko defentsa agindu zuen hasieran, eta handik ordu batera, dena galdua ikustean, Urgull mendiko gaztelura erretiratzea.

Arestian aipatu bezala, frantsesek ordubetez eutsi zioten kalez kaleko eta etxez etxeko borrokari. Urgull mendiko gazteluan gotortzea zen beraien helburua. Kalez kalezko borroka horretan zazpiehun bat soldadu frantses hartu zituzten preso eta ohore militarrez tratatuak izan ziren. Donostiako alkaideek ingelesaren agintariekin hitz egin zuten populazio zibilari zor zitzaion errespetua eskatzeko, eta dirudienez hitz onak jaso omen zituzten. Baina, tamalez, Donostiako biztanleak eta haien ondasunak babestu beharrean, biztanleria bortxatze eta sarraskitzeari, lapurreria egiteari eta etxeak erretzeari ekin zioten inolako oztoporik gabe.

Emakume asko, ihesbidea bilatuz, estolda zuloetan ezkutatu edota teilatuetara igo baziren ere, gehien-gehienak soldadu ingeles eta portugaldarren hatzaparretan erori ziren. Donostiak infernua zirudien, lurrera etorritako infernu gori-goria. Hori guztia gertatzen ari zen bitartean, ekaitz izugarri handi batek hiria astintzen zuen, euri zaparrada, trumoiak, tximistak eta guzti. Soldadu sartu berriak etxeetan sartzen ziren den-dena lapurtzen, baita biztanleek jantzirik zeukaten arropa ere. Kaleetatik barrena, noraezean, Donostiako biztanleek, biluzik edota erdi biluzik, babesa biltzen zuten bitartean, soldaduek umeak eta zaharrak hiltzen, emakumeak bortxatzen inolako adinik errespetatu gabe, jarraitzen zuten.

Esterlines kaleko Bidaurreta merkatariaren etxean sartu nahian zebiltzan atea bortizki kolpatzen. Familia, senar-emazteak, hamabost eta hamahiru urteko Elisa eta Kontxesi alabak, eta hiru seme txikiak sukaldean zeuden, ikarak harturik eta errezo santuari lotuak. Atea botatzekotan zeudela, Estepan aitak etxeko diru guztiak hartu eta ate aldera joan zen familiaren osotasuna erosteko asmotan. Iritsi baino pixka bat lehenago, soldaduek atea botata zuten eta barrura sartuak ziren. Estepan Bidaurreta merkataria haiengana hurbildu zen dirua erakutsiz. Soldaduetako batek tiro bat eman zion buruan,

bete-beteen, eta lurrera hilotz jausi zen. Bihozgabe talde hura familia bilduta zegoen goiko solairura igo zen. Ama sukaldeko atean jarri zen sarrera trabatu nahian, baina hantxe bertan baionetez josi zuten. Ama horrela ikustean, Elisa alaba laguntzera joan zitzaion eta pizti haietako bizpahiruk hartu eta amaren gorpu gainean bortxatu zuten. Gainerako soldaduek hiru mutikoak kolpatu eta biluztu ondoren kalera bidali zituzten. Kontxesi gaztea beraiekin eraman zuten. Hurrengo egunean, hau da, irailaren bateko goizean, kale bazter batean topatu zuten kupel batera lotuta, biluzik, odolez beterik, eta alutik baioneta bat sartuta zuela. Etxean baliozko zegoen guztia zakuratu ondoren su eman zioten eraikinari.

Elisa bortxatu ondoren, hilik zegoelakoan, bertan utzi zuten. Esmatu zenean, etxe osoa suak harturik zegoela ikusi zuen. Nekez atera ahal izan zen kalera. Handik hurbil estolda bat ikusi eta bertan ezkutatu zen. Hurrengo goizean, ingelesek bizirik gelditzen ziren donostiarrei hiri gotortutik irteteko baimena eman zietenean, beraiekin batera alde egin zuen.

Donostiak bazituen garai hartan zazpi mila bizilagun gutxi –gorabehera, eta setioaren orduan hiru mila eta bostehun edo lau milaren artean zeuden barruan. Sarraskiaren ondoren, Donostiako udalak egindako txostenetan irakur daitekeenez, mila eta berrehun biztanle erail zituzten gau odoltsu hartan eta seiehun etxe inguru kiskali. Bakar-bakarrik Trinitate Kalean zeuden hamasei etxeak salbatu ziren, bertan ofizialeen bitokiak ezarri zituztelako. Udaletxea ere erre zuten, eta Santa Maria eta San Bizente elizak salbatu ziren bertan ospitaleak ezarrita zituztelako. Irailaren lehen egunetan, hiritik alde egindako donostiarrek inguruetakoko herrietan bilatu zuten aterpe, eta irailaren zortzian, Zubietan bilduta, bizirik zirauten donostiarrek hiria berreraikitzea erabaki zuten. Elisa Bidaurretak Donostia berreraikitze lanetan parte hartu zuenetako bat izan zen. Jasan behar izan zuen bortxaketa anitz eta basatiaren ondorioz, haurdun gelditu zen eta mutiko kaskagorri bat mundura ekarri. Ume asko jaio ziren horrela, eta aita ezagunik gabeak zirenez gero, gehienei Brit abizena ezarri zieten, britanikoen bortxaketaren fruitu zirela azalduz. Elisaren semeari ere Brit jarri zioten lehen deitura gisa.

* * *

2007ko uztailaren bosta. Eguzki handia zeruan. Donostiako hondartza guztiak jendez gainezka daude. Beñat Sagardia gaztea goiz guztia Kontxako hondartzan eman zuen lagunekin batera. Eguerdi aldera, etxera bazkaltzera itzuli zen. Amak atea zabaldu zion:

- Egun on Beñat!
- Egun on ama!

- Ondo pasatu al duk hondartzan?
- Bai, izugarri ondo. Ura epel-epela zegoen. Primeran bainatzeko.
- Ene bada, Beñat! Gaur ere erre al haiz?
- Ez ama, zuk ekarritako krema ondo eman eta igurtzi dut.
- Aurpegian ere bai?
- Baita aurpegian ere. Ez nuen urtero bezala aurpegia horrela gorritzea nahi.
- Bada, urtero bezala hago! Masailak gorri-gorriak dituk. Bihar dermatologo batengana eramango haut.

Hurrengo egunean dermatologoenera jo zuten. Honek mutila ongi haztatu ondoren, honela esan zien:

- Ez kezkatu. Beñatek duena ez da ezer, herentzia genetikoaren kontua baino. Zuek ba al duzue familian aurreko ingeles edo eskoziarren bat?
- Ez, ez.... guk dakigunez ez! –amak.
- Ba... horrelakoren bat eduki behar duzue familian, seguru. –edikuak, bere baieztapena berretsiz– Masailak eguzkiarekin horrela gorritzea oso ohikoa da britanikoen artean. Ukendu bat aginduko dizuet. Eguzkia hartu aurretik –mutilari begira– eman ezazu egunean bi aldiz.

Eta esan bezala egin zuen. Errezeta idatzi eta amari eskura eman zion. Agur, beste bat arte! esanaz.

Etxera joatean aitari kontatu zioten dermatologoak esandakoa. Aita isildu zen zenbait minutuz eta gero horrela azaldu zien:

- Arrazoa du, gure aldetik britanikoen odola daukagu. Ni Patxi Sagardia Brit nauzue, amaren aldetik, 1813ko abuztuaren hogeita hamaikan, ingelesak Donostian sartu zirenean, soldaduek bortxatu zuten nesketako baten ondorengoa. Oker ez banago, Elisa Bidaurreta izena zuen.

HUNGARIAKO SOLDADUA

Gerra guztiak dira odoltsuak eta ankerrak, baina Napoleon Bonapartek XIX. mendean piztu zituenak ordura arte Europak ezagutu zituen odoltsuen eta ankerrenak izan ziren. Frantses Inperioak Europa osoa zuen amets, eta dena eskura zuela zirudienean jausten hasi zen, kartzegindako gaztelutxoak jausten diren modu berean. Europa osoa bilakatu zen gatazka-leku. Euskal Herrian ere gatazka handiak izan ziren Gasteizen, Donostian, San Martzialen... Odolezko errekek euskal lurra busti zuten han eta hemen. Frantses armada erretiratzen ari zen erresistentzia handia emanaz. Eskualdez eskualde, bailaraz bailara borrokatzen ziren, urrutitik kanoiez eta zizpoletaz, eta hurbiletik baionetaz.

Aiako Harria eta Larrun mendien arteko eskualde zabala izan zen gatazka-leku odoltsu horietako bat. Frantziarrez eta Europako beste hamabost bat nazionalitatetako gizonez osatutako armada inperialak, gibelera egiten bazuen ere, garesti ordainarazten zien espainol, ingeles, eskoziar, portugez eta gainerako aliatuez osaturiko gudaroste etsaiei. Mendiz mendi, ibarrez ibar, baserriz baserri aritu ziren borroka bizian bertako zelai berdeak odolaren gorritasunaz tindatzen. Atsedetik gabe borrokatzen ziren, egunez eta gauez, barkamenik gabe, aurrez aurre, gizonez gizon, baionetaz baioneta.

Azkenean, hura anabasa bihurtu zen. Han ez zeuden bi armada borrokan, hamaika bat talde sakabanatu baizik. Bakoitzak ahal zuena egiten zuen. Irungo lurretan, Ibarla aldean, Hungariako soldaduez osatutako errejimendua erretiradan zihoan. Ustekabean, oihanetatik ateratako etsaiek hango belar-soro batean txikitu zituzten. Etsaiek ez zuten presorik nahi, aurrera egiteko presaturik baitzeuden, eta hori dela eta, bertan baionetaz josi zituzten harrapatutako guztiak. Ilunabarrean, sai eta beleen karraka zen nagusi hilerrin bilakatutako belardi hartan. Baina ez ziren saiak eta beleak gatazka-leku izandako belaze odoleztatu hartan bilaka zebiltzan bakarrak, inguruetakoko baserritarrek ere gorpuz gorpu xerkatzen ari baitziren baliagarri gerta zekiekeen guztia jasoz.

- Begira ezazue mutil hau! Bizirik dago! –esan zien Inexa gazteak ondoan zituen senideei.

Inexa hamasei urteko neska gazte pertxenta zen, gatazka-leku ohi hartatik gertuen zegoen baserriko alaba gazteena. Eta harekin batera ari ziren bilatze lan desatsegin hartan bost anaia-arrebak eta aita-amak. Inexak topatutako soldadu gazteak neska baino pixka bat zaharragoa zirudien, hemezortzi urte ingurukoa edo. Ile horiko mutil lerdena zen, hungariar errejimendu inperialekoa. Zuhaitz baten gerizpean etzanda zegoen eta paparrean zuen zauritik odola borroka zerion. Ahoa eta begiak mugitzen zituen, baita tarteka, baserritarrek ulertzen ez zituzten zenbait hitz jaurti ere.

- Aita, ama! Mutil hau bizirik dago! Eraman dezagun gurekin baserrira. Han sendatuko dugu.

Gurasoek baiezkua eman bezain pronto Inexaren anaiek soldadu gaztea besoetatik eta zangoetatik hartuz baserrira eroan zuten. Han denbora luzez eduki omen zuten bizitza eta heriotzaren artean, baina azkenean, gaztearen osasunak onera egin zuen eta bertan gelditu zen bizitzen bertako senidea bailitzan. Mutil jatorra eta langilea zenez baserriko familiak izugarri estimatzen zuen. Denbora laburrean euskaraz primeran ikasi zuen eta orduan bere bizitza tristearen berri eman zien. Ivan Gal izena zuen eta Hungarian ez zeukan inor zain, bere familia osoa eraso batean harrapatua eta baionetaz josia izan baitzen. Laster Ivan eta Inexaren artean amodioa piztu zen eta bi urte beranduago Irungo Junkal elizan esposatu ziren.

Ikusten dugun bezala, gizakiaren ekintza guztietatik era guztietako ondorioak sor daitezke. Gerra lazarri hark Ivanen eta Inexaren maitasuna piztu zuen, eta gerra lazarri berak ekarri zituen gaur Irunen eta bere bailara osoan Gal abizena duten hamaika eta hamaika gizon-emakume.

NIK DEBRU DAKITA! (1)

XX. mendeko bigarren hamarkadan Nicolas Lamberger frantses hizkuntzalari baskofiloa Baigorri aldera iritsi zen eskualdeko karta edo mapa bat egiteko asmoz. Hizkuntza guztiak miresten bazituen ere, euskara zen bere kuttuna. Louis-Lucien Bonaparte printzeak egindako mapa dialektalak, behin eta berriro, ikertuak zituen, eta Wilhelm von Humbold-ek euskaldunei buruz idatzitako liburu eta prentsa artikulak buruz zekizkien. Euskararekiko sentitzen zuena ez zen amodioa, pasioa baizik. Bazekien Baigorri aldeko toponimia berezi samarra zela, eta bere asmoa, bertakoekin mintzatu ondoren, karta zehatz bat egitea zen. Eta horrela, bere asmoa bete nahirik, Baigorri aldera etorri zitzaigun zaldiz.

Bi aste eskas zeramatzan Baigorrin eta ordurako egin beharreko ia guztia buruturik zeukan. Bertako artzain eta laborari gehienek bazuten Monsieur Lamberger-en berri, beraien artean hau eta hori galdezka ibilia baitzen. Halako batean, Mixel Kurutxet-en bordara bertaratu zen. Aldameneko pentzean zen artzaina ardiak zaintzen. Monsieur Lamberger harengana hurbildu eta agurtu eta bere burua aurkeztu ondoren, galderak egiteari ekin zion:

- Nola du izena leku honek?
- Lizardoi. –laborariak erantzun eta hizkuntzalariak eskuan zeraman kaier txipian horrela idatzi.
- Eta gibealeko harkaitz handi hori?
- Haitzandi. –laborariak erantzun eta hizkuntzalariak bere kaier txipian idatzi.
- Eta iturri hori?
- Ureder.
- Eta hango mendixka?
- Hegiluze.
- Eta iturri ondoko pentzea?
- Iturralde.
- Eta hango oihana?

- Hariztoi.
- Eta horko pettarra?
- Eta zilo hura?
- Eta hango borda?
- Eta ondoko ordokia?
- Eta horko belardia?

Oren erdia zerman galdezka eta jadanik, Mixel artzaina biziki aspertua zen. Haatik, hizkuntzalariak galdezka jarraitzen zuen.

- Eta urruneko gailur hura?

Hura aski zelakoan, Nik debru dakita! ihardetsi zion artzain haserretuak, eta hizkuntzalariak horrela idatzi zuen bere kaier txipian.

* * *

Handik bi urtetara, hizkuntzalari bera azaldu zen bere zaldi ganean Mixel Kurutxet-en bordan. Poz-pozik zetorren eta sakelatik berak egindako karta atereaz, artzainari eman zion, bi urte lehenago emandako laguntza baliosa bihotz-bihotzez eskertuz.

Hizkuntzalaria bordatik aldendu zenean, Mixel artzainak mapa begiratu zuen. Bertan zen berak emandako informazio guztia: Lizardoi izeneko bazterra, Haitzandi izeneko harritzarra, Ureder izeneko iturri garbia, Hegiluze izeneko mendixka, Iturralde izeneko pentzea, Hariztoi izeneko oihana... Informazio guztia ona zen, dena borda gaineko gailurrarena izan ezik, kartan Nik debru dakita izen bitxiaz birbataiatua azaltzen baitzen.

Oharra: Ipuin hau Luzien Etxezaharreta adiskideak kontatutako narrazioan oinarritzen da.

BIZARGINAREN INTXAURRA

XX. mendeko bigarren hamarkadan baziren Donostiako Alde Zaharrean bi bizargin. Bat Santa Maria parrokiako auzunean eta bestea San Bizenterenean. Joxemaritar eta koxkeroen arteko banaketa puri-purian zen garai hartan. Iñaxio Artola, koxkero amorratua zenez, bere auzuneko bizarginarengana joaten zen baina beti kezka batekin ateratzen zen, bere bizarginak ez baitzizkion aurpegi zuloko ileak inoiz ongi mozten. Bezeroei barrendik mingain punta ezarriz zuloa estaltzeko agintzen bazien ere, ez zuen aurpegiaren gunehori inoiz garbi mozten. Akats txiki hori maiz izaten zen gizonezko koxkeroen arteko mintzagai kafetegi eta tabernetan. Santa Maria aldeko bizarginarenera joaten ziren joxemaritarrek, berriz, aski garbia erakusten zuten aurpegi zuloko gunea, bertako ileak ongi moztuta, alegia.

Behin, Iñaxio Artolak, zokokeriak baztertuta, lagun handia zuen Xebas Etxabe joxemaritarrari bere kezka plazaratu zion, eta horrek honela erantzun:

- Motel, motel... jun hadi behin batez gure bizarginarenera. Abila dek oso. Oso teknika ona erabiltzen dik. Jun hadi motel! Ez haiz damutuko! Ikusiko dek!

Eta adiskide onaren aholkuei jarraituz, Iñaxio Artola Santa Maria auzuneko bizarginarengana joan zen. Gizon jatorra iruditu zitzaion. Eta egia! Aurpegi zuloko ileak mozteko bazuen teknika berezi bat.

- Tori gizona! Sar ezazu intxaur hau ahoan eta aurpegiko bizarra moztean, masailen azpian eduki!

Bizarginaren teknika berezia ezagutzean, Ez daude asto guztiak Igeldon bere baitarako pentsatu bazuen ere, txintik esan gabe obeditu zuen agindutakoa. Intxaurra ahora sartu eta eskuineko masail azpian kokatu zuen bertako bizarra mozten zion bitartean. Masail hura eginda, beste masaileko aldera pasatzeko agindu zion bizarginak. Eta orduan gertatu zen gertatu behar ez zena. Iñaxio hizketan ari zen bizargin berritsuarekin, eta ustekabean gaizki kalkulatu eta intxaurra ahoko ezker aldera pasatu beharrean, eztaurretik barrena bidali zuen.

- Ai ene! Aitaren eta semearen! Ederra egin dut. Halako intxaur puska, eta irentsi egin dut. Hau da hau! –Iñaxio Artolak, irentsitako intxaurraren neurriaz kezkatuta.

- Ez kezkatu gizona! –bizarginak, Artola lasaitu nahian-edo– Lasaitu zaitetz! Duela bi egun, Narrika kaleko Joxemari Arruek ere intxaur bera irentsi zuen ustekabean. Atzo gauean obratzean atera zuen, nekez, baina atera zuen. Gaur, goiz-goizean, bizartegia ireki baino lehenago itzuli dit. Eskerrak!!!

JOSETXOREN LANBRETA BERRIA

XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadan automobila aberatsen kontua zenean, motor ttiki bat edukitzeak nolabaiteko estatusa ematen zion bere jabeari. Bizikleta, autobusa eta trena ziren garai hartan Euskal herrian gehien erabiltzen ziren garraioak eta jende xeheak ordu asko ematen zituen oinez alde batetik bestera. Gazteek txirringa maite zuten, ibilgailu jorrek herri batetik bestera mugitzea, inolako garraio publikorik gabe, ahalbidetzen zielako. Independentzia ematen zien, nolabait. Eta gehien-gehienek motor edo motozikleta ttiki batez egin zuten amets. Dena den, eta arestian aipatu dudan bezala, garai hartan oraindik ez zegoen denon eskura motor bat edukitzea.

Igande arratsaldeetan bikoteak herrietako plaza edota ibiltokietan biltzen ziren, eta gero paseoan aritzen. Oraingo historia Erreterian gertatu bazen ere, Euskal Herriko edozein herritan gerta zitekeen. Igandero, arratsaldeko bostak aldera, gazteak zumardian biltzen hasten ziren. Lehendabizi, neskak biltzen ziren eta ordu erdi batez kontu-kontari aritzen ziren beraien artean elkarri kontu ttikien berri emanez. Geroxeago, mutilak joaten ziren andregaiaren bila eta horrela, bikoteak bilduta, paseatzeari ekiten zioten, bikotea bakarrik batzuetan, taldeka –hau da bi edo hiru bikote elkarrekin– gehienetan. Arratsalde pasa egin ondoren, norberak bere etxeko bideari ekiten zion, eta normalean, mutilek neskak laguntzen zituzten euren etxeetako sotoetaraino. Erretiradako momentu gazi-goxo horietan izaten ziren musutxorik ederrenak edota maitasunezko hitzik politenak.

Uztaileko igande hartan eguzkiak indar handiz berotzen zuen. Neskak, igandeko arropa dotoreaz jantzita, zumardiko jarlekuetan eserita zeuden, mutilen esperoan. Bitartean, beraien sekretuak kontatzen zizkieten elkarri.

- Gaur Pellok alkandora zuri berria ekarriko du jantzita. Irrikitan nago ikusteko. Ederra egongo da, benetan! –Mari Karmenek, suspirioen artean.

- Ba, Iñaxiok espartin berriak ekarriko ditu. Atzo bere arreba Joanik esan zidan berriak erosi dizkiotela, aurrekoak zahartuta eta zulatuta zituelako. Dotore egongo da, benetan! –Pilartxok, bere mutila afanatu nahian.

- A zer kasualitatea! Gaur, gure mutil guztiek estrenatu behar dute zer zerbait. Beñardo nireak mila arriazko galtza berria ekarriko du jantzita. Aurrekoa zahar samarra zeukan, eta ama besoetakoak berria oparitu dio. Eder-ederra egongo da, benetan! – Joxepik, bere mutila goratu nahian.

- Eta hireak, Iñaxita? –isilik zegoen laugarren neskari begira– Zer estrenatuko du Lezoko hire baserritar arlote horrek? –Mari Karmenek.

- Kar, kar, kar. Kar, kar, kar!!! –hiru neskak eroaren gisa barrez.

- Josetxok gaur ez du arroparik estrenatuko –Iñaxitak– baina lanbreta bat erosi du eta harekin nire bila etorriko da. –Iñaxitak, bere hitzak ongi ahoskatuz eta beste hiru neskengan inbidia sortaraziz.

Handik gutxira Pello etorri zen bere alkandora zuri diztirante berria jantziaraz. Ederra mutila, benetan! Geroxeago, Iñaxio etorri zen espartin berriak jantziaraz. Dotore, dotorea! Eta azkenik, Beñardo iritsi zen bere mila arraiatzko galtza berria jantziaraz. Ongi ematen zion. A zer mutil ederra! Bakar-bakarrik Josetxo eta bere lanbreta falta ziren. Zarata bat entzuten zuen guztietan Iñaxitak ezker-eskuin begiratzen zuen urduri. Baina alferrik! Josetxo ez zen inondik azaltzen. Halako batean, motor soinu eder bat entzun zuten. Burrun, burrun, burrun...! Eta abarkez, koadroetako alkandoraz eta galtza bonbatxo urdinez jantzitako mutil bat azaldu zen lanbreta berri-berri baten gainean. Josetxo zen! Iñaxitaren bihotza poztu eta harrotu egin zen. gainerako neska-mutilek isilik eta bekaitzez gainezka begiratu zioten etorri-berriari.

- Arratsalde on Jaungoikoak eman diezazuela! –Josetxok.

- Baita zuri ere! –beste guztiek.

- Eguraldi polita gaur! –Josetxok.

- Bai, oso eguraldi polita. Eta zer egiten duk hik hemen horrelako eguraldiarekin? Ez al duk belarretan egon behar? –Pellok, Josetxoren baserritartasunaz burlatu nahian.

Josetxok ez zuen erantzun eta Iñaxitari begira, honela eskatu zion:

- Eser zaitetz atzean Iñaxita, Txikiardiko erromeriara joango gara.

Eta Iñaxitak bere mutilak eskatu bezala egin zuen. Gainerako neska-mutilek zorrotz begiratzen zieten bekaitza ezin ezkutatu. Josetxok motorra berotu eta jauzi bat eginez, Errenteriatik Txikiardi alderantz abiatu zen, zumardian beraiei begira gelditu ziren neska-mutilak ahoa bete hortz utzirik. Abiatu eta minutu pare batera, Josetxok Iñaxitari galde egin zion:

- Zer moduz Iñaxita? Ondo pasatu al duzu astea?

... Baina bere harridurarako, neskak ez zion erantzun.

- Iñaxita, haserre al zaude berandu iritsi naizelako?

... Eta oraingoan ere, inork ez zion erantzunik eman.

- Ongi al zaude, Iñaxita? –galde egin zion azkenik, atzera, neska eserita zegoen tokira begiratzen zuen denbora berean.

Baina neska ez zegoen motorrean, bere gibelean eserita. Zumardi aldera begiratu zuen, eta han, errepidean eserita, ikusi zuen Iñaxita gaixoa. Lehen jauzi hartan eroria zurrenik. Zumardian ziren gainerako neska-mutilak barrez lehertu ziren.

- Kar, kar, kar. Kar, kar, kar, Kar, kar, kar ,kar!!!

Eta Iñaxita gaixoak, lotsaren lotsaz, ez zekien zer esan edota zer egin. Josetxok, atzerantz biratu zuen motorra, Iñaxita lotsatua hartu eta bide osoan elkarri deus esan gabe, Txikierdi aldera abiatu ziren. Iñaxitaren masailetatik amorruzko malkoak zirriatzen ziren.

Gaur, berrogei urte igaro dira Errenteriako zumardian istripu ttiki hori gertatu zitzaientetik. Lezoko baserrian bizi dira seme-alabez eta bilobez inguratuz, eta Josetxo eta Iñaxitaren bihotzetan piztuta sumatzen dena ez dira amorruzko edota lotsazko sentimenduak, maitasunezko eta zoriontasunezkoak baino.

SOLDADUSKAREN KONTUAK

Oraingo gazteek, zorionez, ez dute inolako soldaduskarik egin behar, baina gauza jakina da ez dela horrela izan beti. Iparraldean frantsesen derrigorrezko soldaduska laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran indargabetu zuten eta Hegoaldean espainolen soldaduska zenbait urte beranduago. Horrela izaki, oraingo gazte euskaldunak libro dira horrelako zerbitzu penagarriak egitetik. Dena den, tarteka, berrezartzearen zurrumuruak entzuten dira, gehienbat Madrileko politikari eskuindarren ahotan. Baina utz ditzagun oraingo arriskuak airean eta irakur dezagun hirurogeita hamarreko hamarkadan kokaturiko istorio hau.

Patxi eta Juantxo iruindar gazteak pozik bizi ziren beraien herrian. Ttiki-ttikitandik lagunak ziren, eskolan elkarrekin ibiliak baitziren eta garaiko gazteen modura parrandaz parranda eta bestaz besta zebiltzan. Biak sanferminero amorratuak ziren, urtero entzierroan korri egiten zuten horietakoak. Behin, zezen batek Patxi harrapatu zuen eta ipurdi matrailean utzi zion bere adarraren oroigarria. Patxi ardo-biltoki batean aritzen zen zama lanetan eta Juantxo zerbitzari gisa Gaztelu plazako Iruña kafetegian. Andregaiia ere bazuten. Edo hobeto esanda, neskalguna orain esaten den bezala. Zorigaitzoko egun batean soldaduskara joateko agindua jaso zuten etxeko gutun-ontzian. Eta itxaroteko gauza bazen ere, hor hasi zitzairen gure bi lagunei bizimodua mingosten.

- Hau nazka! –Patxik– Orain, dena eskura daukagunean, bizimodua nolabait bideratuta, joan behar diagu militar babo ergel horiek zerbitzatzera.

- Bada, hi joango haiz! –Juantxok, haserre bizián– Nik ez diat joateko asmorik.

- Eta zer egingen duk, desertatu eta Iparraldera ihes egin? –Patxik, harrituta.

- Bai zera! –Juantxok, suminduta– Ni ez nagok orain horrelako abenturetarako, baina zer edo zer asmatuko diat.

- Arrazoia duk! Zer demontre! –Patxik– Nik ere zerbait asmatuko diat. Soldaduskara beraien izeba Margarita joan dadila!

Zenbait egun beranduago, kuartelera neurtzera eta lehen paperak egiteko egun malapartatua iritsi zitzairen. Ehunka gazte pilatzen ziren kuarteleko sarrerako zabalduan txandaren zain. Patxi eta Juantxo ere beraien artean zeuden.

- Ez zegok eskubiderik! –Juantxok– Militar babo hauentzat gu azienda gara, besterik ez.

Patxik burua goitik behera astinduz adostasuna adierazi zion. Eta ordubete ilaran eman ondoren, bulegoetara sartzeko tenorea iritsi zitzaion. Atean zegoen sarjentuak egin beharrekoa azaldu zion.

- Kendu arropa guztia galtzontziloa izan ezik, neurtu eta pisatuko zaituztegu-eta.
- Ikusten? –Juantxok, amorruren amorruez– Behiak bezala tratatzen gaitiztek.

Eta Patxik, berriro ere, burua goitik behera astinduz adostasuna adierazi zion. Pisatu, neurtu eta gorputzaren atalak ongi aztertu ondoren, janzteko eta ate ondoko bulegora pasatzeko agindu zion lehengo sarjentu berberak.

- Zoazte bulegora, eta soldaduska ez egiteko pisuzko arrazoiren bat baldin baduzue kontu iezaiozue bulegari andereari zuen txostenean idatz dezan.

Entzun bezala egin zuten. Bulego ziztrin hartara sartu eta arrunt itsusia eta desatsegina zen atso bulegariak banan-banan hartu zituen. Juantxoren txanda ailegatu zelarik galde egin zion:

- Eta zuk zer daukazu?
- Alergia ikaragarri bat –Juantxok– Erdi gaixo uzten nauen alergia bat.
- Zehaztu gehiago mesedez. Zerk eragiten dizu alergia hori? –atsoak.
- Militarren uniformeek! –Juantxok, serio-serio eta ilaran zeuden beste mutil guztien barre algarak sortaraziz– Uniformeak ikustean hazkura handia etortzen zait eta egon eza sortarazten dizkidaten pikor handi-handiak eta gorri-gorriak ateratzen!

– Segitu zuen Juantxok.

Atso bulegariari ez zitzaion bat ere gustatu Juantxoren alegazioa, eta haserre bizian erantzun zion:

- Ez zait iruditzen taxuzko arrazoia denik, beraz, txostenean ez dut horretaz ezer idatziko. Eta hobe zuretzat, gainera, lotsagabe hori! Hori idatziz gero, soldaduska egin beharko duzu baina ziegan sartuta. Alde hemendik astapito hori, eta eros ezazu ukenduren bat zure pikorrak sendatzeko! –eta ilaran zain zeudenei begira– Hurrengoa!

- Eta zuk zer duzu? Beste alergiaren bat koskabiloetan? –esan zion haserre aurpegiaz ilaran hurrengoa zen Patxiri.

- Ez anderea! Nik ez dut hortzik! –ihardetsi zion oso modu traketsean ahoskatuz eta inolako hortzik gabeko ahoa zabalduz.

Illaran zeuden beste mutil gazte guztiak aho zabalik geratu ziren Patxirena entzutean. Juantxok ezin zuen sinistu ere egin ikusten ari zena.

- Baina, baina... Patxi! –esan zion harridura handiz.

- Eta noiztik zaude hortzik gabe? –atsoak, txostenean Patxiren alegazioa idatziz.

- Ttiki-ttikitandik. Lau urte nituenean asto batek ostikada bat eman zidan ahoan, bete-betean, eta ordutik. –Patxik.

- Ongi, ongi da! Hurrengoa! –atsoak.

* * *

Kuarteletik ateratzean Juantxok derrigorrezko galdera egin zion Patxiri:

- Baina erotu al haiz? Zer egin duk?

- Hortzak limatu ditiat soldaduskatik libratzeko.

- Hi zeharo erotu haiz motel! –Juantxok.

* * *

Handik hilabete batera bi lagunak kalean topatu ziren.

- Aizak Juantxo, ba al dakik soldaduskatik libratu naizela? –Patxik, pozaren pozez, hortzik gabeko ahoa erakutsiz.

- Zorionak Patxi! Hortzengatik, ezta? –Juantxok, etsiturik.

- Ez motel, ez, oin zapalak topatu dizkidatelako!

PIERRE TARDÉ-REN AMETSA

Betidanik autobusak maite izan ditu Pierre Tardé frantsesak. Txipitan horixe izaten zen Eguberrietan Bizarzuriri opari gisa eskatzen ziona. Urteak joan eta urteak jin, urtero gauza bera eskatzen zuen. Bere logela era, neurri eta kolore guztietako jostailuzko autobusez beteta zeukan. Ez zen jostailu hoberik harentzat. Lyon-en bizi zen bere guraso eta anaia-arrebekin. Ikasketak bere hirian egin zituen, eta behin, nerabe zela, eskolako zenbait lagunekin batera bidaia bat egin zuen Euskal Herrira, Lapurdiko Getaria herrira, hain zuzen ere. Bertan hamabost egun eskas egin zituzten arren, aski izan ziren Pierre gurea Euskal Herriaz, bertako hondartzez, bertako paisaiatz eta bertako neska batetaz maitemindu zedin.

Pierre eta bere lagunak egunero joaten ziren bertako hondartzara eta bertan, hondartza aurreko ostatu horietako batean topatu zuen bere bizitzako lilia. Neskak Mirentxu izena zuen eta euskalduna zen, Donapaleukoa, eta udetan Lapurdiko kostaldera hurbiltzen zen ostalertsu.

gisa lan egitera eta sosa batzuk sakelaratzera. Ikusi orduko maitemindu ziren, amerikarren filmetako protagonistei gertatzen zaien bezalaxe. Hamabostaldia bukatuta, Pierre Tardé Lyonera itzuli zen, atzean Euskal Herria eta Mirentxu utzirik. Orduz geroztik, eta hurrengo uda arte, eskutitzez eta telefonoz hitz egin zioten elkarri.

Hurrengo urtean, Pierre Getariara itzuli zen, baina ez udatiar gisa. Herriko ostatu batean lan bilatu zuen eta bertan aritu zen zerbitzatzen uztailean eta agorrilean. Horrek aukera eman zion, lana bukatu ondoren, Mirentxurekin ateratzeko eta bien arteko harremana finkatzeko. Irailean Lyonera itzuli zen, eta berriro ere, telefonoz eta eskutitzez bideratu zuten bien arteko harremana.

Hurrengo urteko uztailaren hasieran Getarian zen, berriro ere, eta berehalaxe hasi zen lanean aurreko urteko ostatu berean. Bertako nagusiek aunitz estimatzen zuten, Pierre mutil zintzo eta langilea baitzen. Beraiekin eta Mirentxurekin ikasi zuen euskaraz. Agorrilaren azken aste kondarrean, Mirentxuk Donapaleura eraman zuen mutila, bere baserria eta bere familia ezagutu zitzaiz. Mirentxuren gurasoek eta anaia-arrebek biziki harrena ona egin zioten Pierreri. Irailerako Lyoneren zegoen, berriz ere, baina ordurako bazuten ezkontzaren eguna finkatuta. Hurrengo urteko udaberrian, Donapaleuko elizan esposatu ziren eta Mirentxuren baserrian habia zuten finkatu.

Mirentxuren anaietako batek bazuen garaje mekaniko bat eta berarekin lan egin zezan hartu zuen Pierre. Eta horrela, nahigabea, txipitatik zuen zaletasuna ere hurbiletik ezagutu ahal izan zuen. Hamabost urtetan koinatuaren garajea lan egin ondoren, azkenean, bere bizitzako ametsa betetzeko aukera etorri zitzaion. Ordurako bazuen diru

franko aurreztuta, eta horrekin eta bankuan eskatutako diru maileguarekin, autobus konpainia bat zabaldu zuen. Hasieran autobus bakarra zuen, baina lanean biziki fina zenez gero, urte zenbaiten buruan sei autobus edukitzera iritsi zen.

Bere emaztea, bere lau seme-alaba txikiak, eta autobusak maitatzeaz gain, euskara eta Euskal Herria era indar handiz maite zituen. Horregatik, hasiera-hasieratik, bi lauburu handien artean, bere izen-deiturak ezarri zituen autobus guztietan, baina euskaraz. Autobus konpainia ireki zuenez geroztik hamar bat urte igaro dira, eta gaur egun bere autobusak hor dabilta, langileak, ikasleak, udatiarrak, negozio andre-gizonak,... toki batetik bestera eramaten. Eta gainera, puntual-puntualak izateko sona ongi irabazia omen daukate bi lauburu handiren artean BETTI BERANTA euskal letra dotorez idatzirik daramaten autobusek.

SOINUJOLERAREN PATU GAIZTOA

Daniel Irazoki lesakarra soinu-jole famatua zen Bortziri osoan. Bestetan eta ezkontzetan jotzen zuen gehienbat. Aunitzen ustez, ez zegoen besta egiterik Daniel gabe. Esku-soinu-jole trebea izateaz gain, hagitx animosoa zen, eta dohain berezia zuen jai giroa pizteko. Soinu-ttikiaz ere, ederki moldatzen zen. Horixe zen Danielen ofizio eta afizioa, eta horri esker ateratzen zuen bere bizimodua aurrera. Ateratzen zuena ez zen aberasteko hainekoa, baina bai eroso bizitzeko modukoa. Hori bai, arrunt nekeza, aste-hondar guztietan horretan aritzen baitzen, han-hemenka jotzen, eta aunitzetan baita gaueko ordu-ttikietan ere.

Behin, Fantastic Zircus izeneko zirku italiarra iritsi zen ondoko herrira, hau da, Berara, lehoi, krokodilo eta guzti. Bortziriko haur-guztiak, holakoetan gertatzen den bezala, bertara hurbildu ziren. Italiarrek negozio ona espero zuten, baina ustekabez, lehoiak mantsotzeko musika jotzen zuena bihotzekoak jota hil zen egun haietan, eta piztiak urduri samar zebiltzanez gero, ez zen jendaurreko espektakulurik ematen ahal. Zirkuko zuzendaria eta idazkaria guztiz desanimatuta zeuden, afera konpontzeko zer egin ez zekitela. Horietako batean, Errekalde ostatuan pintxoak jaten ari zirela, bertako mutil-zerbitzariak Daniel Irazokiren berri eman zien. Zerbitzariaren hitzek esperantzaz piztu zituen gizon nahigabetu haien bihotzak. Eta horrela, Lesakara joan ziren Danielen bila. Musikaria etxean harrapatu zuten eta berehalaxe proposamen goxo bat luzatu zioten:

- Zure lana litzateke egunero lehoiei musika jotzea, ordubete goizez, beste hainbeste arratsalde. Musika goxoa entzutean izugarri lasaitzen dira, eta gero trankil eta sosegatu ibiltzen dira zirkuko pistan hezlearen aginduetara. Karabana guztiz hornitu bat jarriko dizugu, hileru hiru mila euro kobratuko dituzu eta urtean hilabeteko oporraldia izango duzu. Zer iruditzen zaizu?

Lesakarrak harriritu entzun zuen zirkuko zuzendariaren proposamena, eta ez zitzaion bat ere gaizki iruditu. Berehalaxe onartu zuen.

- Bai, ados nago! Non sinatu behar dut?

Eta horrelaxe, Daniel Irazoki soinu-jole lesakarra lanean hasi zen Fantastic Zircus ospetsuan. Bizpahiru urtetan, alde batetik bestera ibili zen zirkuarekin bueltaka. Europa osoa korritu zuten. Hasieran oso gustukoa izan zuen bizimodu hura leku eta pertsona ugari ezagutzeko aukera eman baitzion. Ingelesez, frantsesez eta italieraz hitz egiten polito ikasi zuen. A zer pagotxa! A zer mandinga! –pentsatzen zuen lehen garai hartan. Baina lehen hiru urteen bueltan lan hura aspergarria eta monotonoa egiten hasi zitzaion.

Egunero, bai goizez eta bai arratsalde, lehoi kaiolan sartu eta eskusoinua jotzen hasten zitzairen. Kaiolan sartzean piztiekin lesakarra orroka hartzen bazuten ere, handik ordu erdi batera lasai ederrean etzanda gelditzen ziren, hagitik mantsoturik, lesakarraren soinua atsegin handiz entzuten. Daniel kaiolara sartzean lehoi zirenak kaiolatik irtetea katu bilakaturik zeuden. Hori bai, jo beharreko musikak lasaia behar zuen izan, baltsak, klasikoa... ez fandango edota horrelakorik. Eta hori zela eta, lan hura aspergarria eta errepikakorra egiten hasi zitzaion gure musikariari. Hori bai, hilero jasotzen zuen soldatak aspergarritasun guztiak uxatzen zizkion burutik. Huraxe zen haren benetako pizgarria. Daniel dirua aurrezten ari zen. Bost urte gehiago lanbide horretan, eta Lesakan baserri bat erosteko haina diru edukiko zuen. Huraxe zen haren ametsa, gero eta gertuago zekusan ametsa.

Haietako batean, bere roulottera kuluxka egitera zihoala, zirkuko albaiaria topatu zuen atean bere zain.

- Arratsalde on Irazoki jauna! –esan zion errespetu handiz.
- Gauza bera Mazzantini jauna! Zer duzu nire zain egoteko? –Danielek, albaiariaren bisitaz harrituta.
- Luzifer lehoi zaharraz hitz egin nahi nizun. Badakizu zahar samarra dela, eta gero eta gaixoago dagoela, ezta?
- Bai jauna. Zaharra baina gisakoa. Arreta handiz entzuten dit beti. Nire kuttunetako bat da.
- Bai, badakit. Baina adinak ez dio inori barkatzen eta agian ez zenuke kaiolan beste lehoiekin batera sartu beharko. Arriskutsua izan daiteke.
- Zaude isilik, Mazzantini jauna! Luzifer nire entzulerik onena da. Isil-isilik, otzan-otzan, mantso-mantso egoten da nire musika entzuten. Niretzat plazera da esker oneko horrelako entzuleak edukitzea. Ez dut pentsatzen nire kontzertuetatik aldentzea. Alferrik ari zara!
- Baina, baina... Irazoki jauna. Entzun beharko zenidake. Luzifer gero eta zaharragoa da eta gero eta kaskatuago dago. –albaiariak bere iritzia ongi azaldu nahian.
- Eta zer? Zaharra delako geriatriko batean sartu beharra daukagu eta gure musikatik urrundu? Ezta erotuta ere! –Irazokik, haserretzen hasita.

- Baina Irazoki jauna! Ez izan kasketoso eta entzun nire arrazoiak!

–Mazzantini jaunak, bere baitatik irteten hasita.

- Kasketoso? Entzun behar nuena! Utz nazazu lasai! Nik badakit zer den egin behar dudana! –eta gehiago esan gabe, albaitaria ahoa bete hortz utzita, roulottera sartu zen.

Daniel Irazoki ez zegoen albaitari babo haren iradokizunak betetzeko prest. Luzifer entzule ona zuen, eta kontzertuetatik urruntzea bekatu mortala iruditzen zitzaion. Hori dela eta, kontzertuen tenoreetan, beste lehoiekin batera kaiolan sartzen jarraitu zuen. Luziferrek begi handiz begiratzen zion beti, arreta ezin hobez.

Baina azkenean, gertatu zen gertatu beharrekoa. Goiz batean, Danielek bederatzi lehoi sartu zituen kaiolan bere kontzertuaren entzule izan zitezenean, Luzifer zaharra beraien artean. Danielek ohiko erreperitorioari eman zion hasiera, baltsak eta horrelako doinu lasaiak. Lehoiek liluratuta begiratzen zioten, lasai-lasai, otzan-otzan, mantso-mantso... Danielek pozik segitzen zuen eguneroko kontzertuaz. Haatik, Luzifer zaharra ez zegoen beti bezain lasai, otzan, mantso. Etengabe orroka ari zen, bere letagin zorrotzak, behin eta berriro, erakutsiz. Haserre zirudien. Bat-batean altxatu eta harriturik begiratzen zion musikariarengana abiatu zen...

Goizeko hamarrek aldera, jendaurreko goizeko saiorako lehoiak behar zituztela eta, hezleak eta bere laguntzaileek kaiolan gertatutako triskantza ikusi ahal izan zuten. Kaiolan, lehoiak lasai-lasai, otzan-otzan, mantso-mantso, zeuden etzanda, sabela bete-bete eginda, bapo janda. Soinujolearen arrastorik ez, hezur odoltsu pilo bat eta zenbait arropa urratu izan ezik. Kaiolako bazter batean, lurrean botata, soinujolearen akordeoia zegoen. Hezlearen eta laguntzaileen oihu eta garrasiek zirkuko gainerako guztiak erakarri zituzten.

- Mamma mia! Hau da hau! –zuzendariak, eskuak desesperazioz burura eramanda.

- Gertatu behar zena, jauna! –albaitariak– Lehengo egunean ohartu nahi izan nuen. Luzifer gero eta entzungorragoa zegoela esan nahi izan nion, baina zoritxarrez, ez zidan entzun nahi izan.

BELARRETAN

Iñaki gazte azpeitiarra zen, baserritarra. Aita-amak adinekoak zituen eta Pilartxo arreba elbarri zen. Horrela izanik, esan daiteke, bat ere zalantzarik gabe, bera zela baserriko sostengurik nagusia. Baina militarrek ez zuten horrela ulertu, edo hobeto esanda, ez zuten ulertu nahi izan, eta derrigorrezko soldaduskara deitu zuten. 1973. urtea zen, Francoren diktaduraren azkeneko urteak. Ordurako diktadorea arras gaixorik eta akiturik bazegoen ere, gobernukideen zitalkeriak bizi-bizirik zirauen, eta jakina, ez zeuden prest gazte euskaldun baten egoera lazgarriari erreparatzeko.

Iñakik, adiskideek aholkaturik eta lagundurik, beharrezko alegazioak egin zituen soldaduskatik salbu geratzeko, baina alferrik!, militarrek entzungorrena egin baitzuten. Eta horrela joateko tenorea iritsi zitzaionean, Iñaki soldadu eraman zuten Azpeititik Espainiako zoko galdu batera. Hura infernua izan zen Iñaki gurearentzat. Han, etxetik urrun, pailazo anker batzuei obeditu beharrean, ulertzen ez zuen hizkuntza batez egiteko behartuta, eta baserrian utzitakoen oroitzapenek bihotza kiskaltzen ziotela, kartzela batean bezala sentitzen zuen bere burua.

Udararen etorrerak erabat estutu zuen Iñaki. Bazekien baserrian bere beharrean zeudela. Belarretan aritzeko garaia zen eta bera gabe ezinean ibiliko ziren guraso eta arreba gaixoak. Baserrira joan beharra zeukan. Pentsatu eta egin. Astebururako baimenaz atera zen behin, tren hartu eta Euskal Herrira itzuli zen. Baserrira iristean, guraso gaixoak ikusi zituen belarretan, ezinean, leherturik, lur jota zeudelarik. Seme gazte sasoikoa ikustean poz handia hartu zuten. Hura poza! Salbu ziren!

Astebete egin zuen baserrian, eguraldi ederra baliatzen eta belar-metak egiten. Bitartean, kuartelean militarrek Iñaki bilatzeko eta atxilotzeko agindua emana zeukaten.

Hurrengo astelehenean, eguzki handiko egunean, Iñaki gurdi gainean ari zen lanean, belarra ongi antolatzen. Aitak, sardea eskuan, belarra igotzen zion gurdira, eta ama, emeki-emeki, belar pixarrak jasotzen zituen eskuareaz. Horrela ari zirela, hiru gizon azaldu ziren urruntasunean, eta lanean ikustean beraiengana hurbildu. Militarrak ziren.

- Iñaki Sorazu Larrañaga! –galde egin zieten lanean ari zirenei.

- Bai, ni naiz! –mutil gazteak erantzun.

Eta ezer gehiago esan gabe, hiru gizonek gaztea gurditik jaitsarazi zuten eta eskumuturretan kriluak jarriz, beraiekin eraman zuten. Alferrik izan ziren guraso zaharren protesta eta negarrak! Gizon haiek ez zuten gupidarik ezagutzen, eta barre, irain eta kolperen artean Iñaki baserritik aldendu zuten. Espainiako kuartelera eraman

eta desertorea zela argudiatuz, epaiketa militarra egin zioten. Bekatu handia omen zen Iñakik egindakoa, eta hori dela eta, epaile uniformatu bihozgabe haiek hamabost urteko kartzelaldia agindu zioten. Horren ondorioz, Euskal Herritik oraindik urrunago zegoen dorre-espetze batean sartu zuten. Espetxeko zuloan egunak bata bestearen atzetik igarotzen ziren. Bizitza hura infernu berbera zen Iñakirentzat. Isolatuta zeukaten leihotiki bakarria zuen ziega hartan. Ez zuen ia inor ikusten, kartzela-zain ankerrak izan ezik, eta hauek, behin eta berriro, iraintzen eta umiliatzen zuten haren euskalduntasunaz trufatuz.

- Toma la comida de los cerdos para cenar, vasco de mierda! (To txerri-jana afaltzeko euskaldun zarpaila!) –esaten zioten txerri-bazka hura ziegako zola zikinean utziz.

Kartzelako leihotik egunez eguzkia eta gauetz ilargia eta izarrak ikus zitzakeen baita tarteka hodei zurien artean hegaka zebiltzan txoriak eta hegaztiak ere. Txorien txioa eta arrunt gutxitan egiten zuen euriaren doinua ziren bihotza lasaitzen zioten bakarrak. Udazkena igaro zen, baita negu gorria ere. Atzean gelditu ziren ziega hozpelean pasatutako hotzak. Udaberria argitasunez jantzirik etorri zen, uda sargoritsua gero. Iñaki ordurako desesperaturik zegoen belarretan nekez eta ezinez arituko ziren aita-ama zaharrez pentsatuz. Zulo hartatik atera beharra zeukan. Baina, nola? Giltzapean zeukaten ezagutzen ez zuen hiri arrotz handi batean. Uztaileko egun batez, kartzela-zainak ziegako atea zabaldu zuenean ohiko txerri-bazka emateko, Iñaki ohean etzanda topatu zuen. Ostikada bat eman zion jaiki zedin.

- Despierta cerdo, que aquí tienes tu comida! (Esna hadi txerri halakoa! Hemen daukak hire jatordua.)

Baina Iñaki ez zen mugitu, ez zion erantzun. Hori ikusita, kartzela-zainak maindire zikina altxatu eta mutilaren eskumuturreko zainak moztuta zeudela ikusi zuen. Espetxeko medikuari deika hasi zitzaion, baina berandu zen, ordurako Iñaki beren hatzapparretatik libre baitzen. Egund berean, Azpeitiko baserrian guraso zaharrak nekez ari ziren belarretan, seme gaixoaren oroitzapena bihotzetan zutela. Horrela ari zirela, zapalaitz eder bat ikusi zuten beraien gainean jira-biraka zerbaiten berri eman nahiko balie bezala. Senar-emazte zaharrek hura ikusita, lanabesak utziz, besarkada beroa eman zioten elkarri. Mezua ulertu zuten. Iñaki libre zen!

EUSKARAREN ARGILUNAK

Akira Yakushaki mutil japoniarra da, unibertsitatetik irten berria dena. Hizkuntzalaritza landu du eta beka bat atzeman du bere tesia presta dezan. Akira buru-belarri dabil bere tesiarekin. Mendebaldeko hizkuntza zahar bat ikasten eta aztertzen ari da: euskara. Dagoeneko maila polita du Tokioko unibertsitatean burutu dituen ikasketek esker. Euskaraz idazteko eta irakurtzeko ez du zailtasun handirik, baina hitz egiteko, berriz, bai. Eta hutsune hori nolabait estaltzeko Euskal Herrira etorria da. Lazkaoko Maizpide euskaltegian matrikulatu da eta orduz geroztik, jo ta ke aritzen da euskaraz. Bi hilabete egin ditu, jadanik, eta erraztasun handiz aritzen da hizketan. Erraztasun horri esker adiskide aunitz egin ditu bai euskaltegian eta bai euskaltegitik kanpo ere. Mutil jatorra eta atsegina denez gero, inolako arazorik gabe egin ditu lagunak. Euskal Herrira etorri bezain pronto, auto bat hartu zuen alokairuan, eta euskaltegiak uzten dizkion ordu eta tarte libre guztiak baliatzen ditu herri batetik bestera ibiltzeko.

Ostiral arratsaldean, bazkaldu ondoren, Baionako Euskal Erakustetxea ikustera joatekoa da, euskaltegian egin dituen bi lagun argentinarrekin batera. Mutil argentinarrek Karlos eta Aurelio izena dute. Euskaldunen semeak dira eta euskalduntzat hartzen duten euren burua. Akirak ez du arbaso euskaldunik, baina, hala eta guztiz ere, argentinarrek bezain ongi egiten du euskaraz. Eta harro dago, bera ere, gustura baitago euskaldunen artean, eta dagoeneko, bere burua erdi euskalduntzat hartzen duelako.

Astea ziztu batean igaro zen, eta ostirala iristean, bazkaldu ondoren, Akirak autoa hartu eta lagun argentinarrekin batera, Lapurdirako bidetara lotu zitzaion. Arratsaldeko lauetarako Baionako Museoaren ate aurrean zeuden. Sarrera erosteko leihatilara hurbildu eta Akirak, bere euskara garbiena erabiliz, txartelak eskatu zituen:

- Agatsalde on! Higu sagera emanen dizkidazu otoi.

Sarrera-saltzaileak, harridura aurpegiak begiratu zion txintik esan gabe. Horretaz konturaturik, eta bere soinu ekialdearrari langilearen harridura aurpegia egotziz galdera errepikatu zion R letra gogor, euskaldunon modura, ahoskatuz:

- Hirru sarrera emanen dizkidazu otoi.

Eta oraingoan bai, oraingoan museoko langileak ahoa zabaldu zuen Akira euskaltzaleari erantzuteko.

- Pardonnez-moi monsieur, mais je ne parle pas le japonais!

ALTZATEKO JAUNAREN IRRINTZIA

Ziburuko kolejioko ikasleen artean besta giroa dabil. Azken txanpa eta udako oporraldi luzea gertu daukate. Ikasturte gogorra izan da, baina orain, bakar-bakarrik, azkeneko egunak falta direnean, iraganaren kontua dirudi. Eta egian erran behar badugu, horrelaxe da, ikasturtea amaitzeko zorian baitago. Hori dela eta, kolejioko neska-mutil talde bat txango bat ari da prestatzen oporraldiko lehen asterako. Osora zazpi gazte dira abenturan parte hartuko dutenak. Eta zergatik diogu abentura? Horrelakoa delako. Iban gazteak antolatu du dena. Zenbait gurasok Nafarroako Bera herriraino autoz eramanez dituzte eta handik goiti Larrun mendiraino oinez igoko dira, Ibanek ederki asko ezagutzen duen bideari jarraiki. Gailurretik gertu bada harkaitzen arteko leize-zulo handi bat, eta hurbil samar mazela eder bat. Bertan kanpin dendak ezartzeko asmoa daukate. Plan mundiala. Abentura izugarria.

Eta iritsi, iritsi zen itxarotako eguna. Ordurako, gure gazteek liburuak eta zakuak ongitxo gordeta zituzten, eta egia erran, aski ahantzirik. Igande goiza zen. Eguzki ederra zeruan. Hiru gurasok gidatutako autoetan kargatu zuten dena eta Ibardineko lepotik barrena Bera alderantz abiatu ziren. Iban donibandarraren aitak lehen autoa gidatzen zuen, eta Ibanekin batera Panpi azkaindarra zihoan. Txipitatik izan dira lagunak, Donibane Lohizuneko ama-ikastolan elkarrekin ikasi zuten garaietatik, hain zuzen.

Bigarren autoan Mirentxu eta Elorri ahizpa urruñarrak eta Maitena senpertarra zihoazen. Lehenaren amak gidatzen zuen. Eta hirugarrenean Eñaut eta Julen hendaia. Eñauten aitak zeraman autoa.

Oren erdi batez Berako sarreran, barojatarren Itzea (garai batean Altzate deitu izan zena) etxetzarraren parean zeuden. Ezkerretara jo, Altzateko plaza eder eta loretsua zeharkatu eta Lizuniagako leporantz doan errepidetik barrena jarraitu zuten. Handik zazpi bat minututara, errepidearen ezker aldean, Iratxeko Berea landa-etxera daraman bide estu eta ozpel batetik sartu ziren, eta hortik barrena, emeki-emeki, beste zazpi minututan, aipatutako baserriraino goititu ziren. Bazter hura guztiz berdea eta egutera zen. Huraxe zen txangoaren lehen pausa.

- Aupa neska-mutilak, iritsi gara! –esan zuen Ibanen aitak baserriaren parean autoa aparkatuz.

Beste bi autoetako gidariek gauza bera egin zuten. Gero, gazteek, gurasoen laguntzaz, zakuak, kanpin dendak, poltsak eta bestelako hornigaiak autoetako fardel-ontzietatik atera zituzten. Ohiko pot eta agurren ondoren, zakuak, poltsak eta bestelako zamak bizkar gainean jarri eta aurrean zeukaten bidexkari oinez egiteari ekin zioten.

- Kasu! Kontuz ibili! erranez agurtu zen gazteez Mirentxu eta Elorriren ama.
- Ongi pasa! –gehitu zuten gero, hiru gurasoek ia batera.

Bidea pettarra bezain ederra zen. Oren bat eta erdi inguru behar izan zuten goialdeko harkaitz zurietara iristeko, eta gero aipaturiko harkaitzetatik hur samar zegoen belazean ezarri zituzten kanpin dendak. Hiruak elkarren ondoan altxatu zituzten. Ordurako tripa-zorriak hasita ziren kantari. Ibanek eta Panpik harri koxkorak xerkatu zituzten inguruetan eta horien bidez sutondo ederra paratu. Bertan berotu zuten geroxeago bazkaria zazpi lagun gosetuek. Dena goxoa zen, edo, bederen, horrela iruditu zitzairen gazteei. Gero, bazkalondoko solasak etorri ziren.

- Eta zer diok Iban, aipatu higun leize-zuloaz? Hurbil al dago? –galde egin zion Eñaut hendaiarrak.

- Bai, egia! Hurbil al dago? –besteek batera.

- Bai horixe! Hor aitzinean daukagun harkaitz zuri handi horren giblean. Nahi duzularik ikustera joanen gara.

Bazkaltzeko lanabesak eta tresnak garbitu eta jaso ondoren, harkaitz zurirantz abiatu ziren. Hurbil samar zegoenez, ez ziren gehiegi nekatu harkaitzerainoko bidea egitean. Nonahi, bai kanpin dendak josi zituzten belar-soroan eta baita harkaitzen artean ere, harri pila bitxiak ikus zitzaizketen.

- Eta nork egin ditu harri pila hauek? –galdetu zuen Elorri pinpirinak.

- Ene irudikoz, artzainek. –erantzun zion Ibanek– Ez nago oso ziur, baina uste dut Jainkoak eta Ama Birjinak ezbeharretan emandako laguntzak eskertzeko eginak direla. Bazter hauek erakutsi zizkidan osaba Mixelek kontatu zidanez, haizea altxatzen delarik, harrien arteko zirrikituetatik barna iragaiten da eta txistu moduko otoitza zabaltzen du.

Ibanek emandako azalpenen aurrean inork ez zuen txintik ere erran. Leize-zuloko ahora sartu ziren.

- Hau beldurgarria da! –bota zuen Maitenak– Ez gaitezen barrura sartu, otoi!

- Ixo Maitane. Ez hasi hire beldurrekin, beti berdin hago eta! –Maritxuk.

- Bai, egia dun! –Elorrik– Lehengoan ere, azterketa egiten ari ginela, beldur galanta pasatu huen nik eman ninan txuleta zela eta.

Maitenak ez zuen deus erantzun, oroitzapen txar haiek ere kikiltzen baitzuten.

- Papertxo hartan azterketa gainditzeko behar genituen formulak zeudenan. Hire azterketan idatzi eta Maritxuri pasa, besterik ez huen egin behar. Aisa zunan, eta hala eta guztiz ere... Horrekin ere kaka eginda ibili hintzen –Elorrik– Eta okerrena izan zunan Beñat irakaslea hurbildu zitzainanean. Ikaragarri urduritu hintzen. Nire aitatziren baratzeko tomateak baino gorriago jarri hintzen. Eta gero..., eta gero... –jarraitu zuen espantu handiz Elorrik– txuleta jan egin huen.

- Zendako egin huen halako pitokeria? –Maritxuk, haserre antzera– Hiregatik formularik gabe gelditu nindunan, eta irakasleak zero patatero bat ezarri zidanen azterketan. Ederra egin huen!!!

- Aizan Elorri, dena ez zunan ene falta izan –Maitenak, amorru handiz zabalduz– Kontatu dunan guztia egia dun. Txuleta jan ninan irakasleak harrapa ez nintzan. Zer nahi huen, bada, irakasleak txuletarekin harrapatzea, ala? Eta gainera, berehalaxe leporatzen didan hire zeroaren errua. Ziur aski, ez huen deus ikasi. Bestela, formularik gabe ere, zer edo zer gehiago eginen hukeen.

- Bai Maitena, egia aitortu behar badinat, bezperan ez ninan aunitz ikasi. Hilekoa ukan nuen. Baina txuletako formularik gabe ez ninan deus egin ahal izan, eta hori bai dela hire falta.

- Zaudete isilik, neskak! –Ibanek, eskuan linterna pizturik zuela– eta goazen barrura!

Erran eta egin. Ibanek bidea argitzen zuen linternaz, eta horrela hogeit bat metro egin ondoren, areto biribil batera iritsi ziren. Zabala zen, hogeita hamar metro karratu ingurukoa. Hormetan hiruzpalau sarrera gehiago ikus zitezkeen. Ordurako, zenbait lagun artega samar zeuden.

- Eta linternaren pilak akitzen badira? –Bota zuen Julenek.

- Egia, egia! –Elorrik– Ez gaitezen barrurago sar, otoi!

- Ez!, –Ibanek– barrurago ez gara sartuko. Kilometro eta kilometrotako galeriak omen daude. Eta barrurago sartzeko ekipo berezia beharko genuke. –emendatu zuen.

- Begira ezazue hemen! –moztu zuen Eñautek, hormetako batean zegoen burdinazko lanabes batez zizelkaturiko marrazkia erakutsiz. Lauburu bat da.

Baia hala zen, lauburu ezkerbirakari bat.

- Baina ez dago bakarrik! –Ibanek, linterna marrazkira hurbilduz.

Ez, Ibanek arrazoa zuen, ez zegoen bakarrik. Eskuin aldean bazegoen A bat zizelkaturik eta haren ondoan borra edo mailu adierazi nahi zuen hirugarren marrazki bat. Zer ote?

Horman zizelkaturik ikusitako marrazkiak oraindik gogoan zituztela, kanpo aldera irten ziren. Sartzean utzitako eguzkia ikusi nahi zuten, baina eguzkia ikusi beharrean, itsaso aldetik hurbiltzen ari zitzaizkien hodei beltz-beltzak bistaratu zituzten.

- Ene! Ekaitza heldu da! Falta zitzaiguna! –Julenek.

Kanpin dendetara iritsi zirenerako, lehen euri tanta lodiak botatzen hasita zen. Kostaldetik haize handia altxatu zen. Hala nola, afaltzeko zituzten ogitartekoak jan eta dendetara sartu ziren babes bila. Haize zirimola handi batek dendak astindu zituen. Barruan, gazteak isilik zeuden, arrunt izututa, zihoakienaren beldur.

Haizea gero eta handiagoa zen, euri zaparrada zerratu samarra. Harri piletako zirrikietatik barna iragaitean, haizeak sortarazten zuen soinuak ez zuen otoitza ematen, infernurako deia baizik. Haizeak gero eta gehiago mugiarazten zituen kanpin dendak. Neska-mutilek indarrez eusten zieten dendetako burdinazko hagei, haizeak kanpin dendak eraman ez zitzaizkien. Halako batean, hiru nesken dendatik oihu handiak entzun ziren.

- Zer duzue? –mutilek.

- Haizeak gure denda bota du, –Maitanek– eta ez dugu deus egiten ahal berriro zutik jartzeko.

- Gu ere biziki gaizki gaude. –Eñautek– Haizeak fite botako du gure denda.

- Gu ere antzekoz gaude. –Ibanek– Orena izanen da dendak uztea eta leize-zulora joatea. Han babesa eta goxotasuna ukanen ditugu ekaitza atertu bitartean.

- Ados! –beste guztiek batera.

- Baina Iban, ez ezak linterna ahantzi. –Elorrik, arras izaturik.

- Hartu xirak eta goazen, bada! –Ibanek.

Zazpi gazteak, erorita edo erdi erorita zeuden dendetatik, ahal bezala atera eta korrika egiteari ekin zioten haize zirimola eta euri eraso desafiaturik. Korrika eta lasterka, behin eta berriro eroriz eta behin eta berriro jaikiz, Ibanen linternak markatutako bideari segitu zioten. Azkenean, blai eginda, leize-zuloko ahora iritsi ziren.

- Goazen barrura! Fite! –Ibanek, leize-zuloko ahoa linternaz argituz.

Arrapaladan sartu ziren eta sarrera hartara ere, euria trumilka sartzen zela ikusterakoan, areto biribilera zeraman korridore estutik barrena sartu ziren. Bide erdia egin zutenean, areto biribiletik su baten argitasuna sumatu zuten. Zazpi gazteak galtzetan kaka eginda zeuden.

- Zer egingen dugu orain? –bota zuen Ibanek, ikara musuan nabarmen zuela.

Ahots ezezagun eta sendo batek erantzun zion atzeko aldetik.

- Zer egingen duzue, bada, neska-mutilak? Aitzina segi! Bertzenaz, birikeriak harrapatuko zaituzte. Segi, segi aitzina! –erran zien aurkakorik onartuko ez zuen gizonezko ahots sendo batez.

Gazteek, fitsik erran gabe, ahotsa sortu zen aldera begiratu zuten, isilik, ikara ezin ezkutatu. Eta atorra beltz eta galtza zabal ilun batez jantziriko gizona ikusi zuten. Berrogeita hamabortz urte ingurukoa zirudien. Gizon garaia zen, kaskazuria, bizar zuri handi baten jabe. Oinetan abarkak zeramatzan jantzirik, eta eskuineko eskuan borra edo mailu itxura zuen burdinazko erreminta.

Gazteek aurrera jarraitu zuten, areto biribilerantz. Hara iristean, erdian piztutako su baten inguruan eserita borts neska-mutil ikusi zituzten. Lapurtar gazteen eta gizon bizardunaren etorreraz oharturik, altxatu ziren eta sartu berriak agurtu zituzten.

- Gau on lagunak! Nor zarete? Gu beratarrak gara. Larrunen itzuli bat ari ginen egiten ustekabeko ekaitzak harrapatu gaituenean. Eskerrak leize-zulo hau hurbil genuela bertzenaz... –erran zuen mutiletako batek.

Hori entzutean, Ibanek arrapostua eman zion:

- Gu lapurtarrak gara, aste bat Larrunen pasatzera etorriak. Aldameneko belardian ezarri ditugu kanpin dendak, baina haizeak bota dituenek gero, hona jin gara babes xerka.

- Eta zu? –galdetu zion mutil beratarrak borra eskuan zeraman gizonari.
- Nire izenak ez dizue deus erranen. Hemen bizi naiz, Larrunen, eta zuek bezala, aterpe bila sartu naiz leize-zulo honetara. –gizonak.
- Eser zaitetze! –gonbidatu zituen mutil beratarrak– Eseri, eseri! –errepikatu zuen.

Denak suaren inguruan eseri ziren berotasuna bilatuz. Goxoa zen. Berako neska batek ogia, txorizoa eta ardo zahatoa atera, eskaini eta partitu zituen eserita zeuden guztien artean. Inork ez zion eskaintzari uko egin, eta zahatoa eskuz esku eta ahoz aho dantzan ibili zen hezurretaraino bustirik ziren lagun haien eztarrien goxagarri. Denbora igaro ahala, suak inguruan bildutakoen arropak idortu zituen eta ardoak beraien mihiak alaitu.

- Gaua hemen, suaren inguruan, pasatu beharko dugunez gero, onena dugu istorioak kontatzea. Horrek lagunduko digu gaua hobeto ematen.

Eta erratetik kontatzera pasatu zen.

- Lehen erran dizuegun bezala, gu beratarrak gara. Eta gure herria eta Larrun mendia lotzen dituen kondaira zahar bat kontatuko dizuet. Hagitz garai zaharretan, beratarrak jentilak ziren eta euskal jainko-jainkosak gurtzen zituzten. Baina, behin, beltzez jantzitako apaizak azaldu ziren herrian. Hauek soldaduak eta borreroak ekarri zituzten, eliza eta kaperak eraiki, eta beratarrak, ezinbertzean, kristautu ziren. Denak Alzate jauregiko jaun zaharra izan ezik. Honek itzal handia zuen herrian, eta hori dela eta, apaizak ez ziren berarekin sartu egiten. Egun batean, Alzateko Jauna hil zela zabaldu zen. Haren lagun fidelek hil-kutxa handi batean sartu eta errito zaharrei jarraituz ehortzi zuten leku sekretu batean.

-

Baina apaizek horrela zabaldu bazuten ere, Arbelaitz izeneko zerbitzari fidelak hagitz bertzelakoa kontatu zuen. Alzateko Jauna ez zegoen hilik, herritik Larrun mendira alde egina baizik. Beran arras nazkaturik zegoen apaizekin eta haien jarraitzaileekin, eta Larrunera bizitzera aldatu zen. Abiatu aurretik, itzultzeko hitza eman zuen, eta itzultzean, eskuan zeraman borraz beltzez jantzitako labezomorroak akabatzeko eta bai Bera eta bai Euskal Herri osoa fede berriaren morroiek inposaturiko zapalketatik askatzeko asmoa azaldu.

Inoiz gehiago ez zen Berara itzuli. Dena den, beratarrak aunitzek ikusi omen dute ekaitz handiko egunetan Larrundik Bera aldera begiratzen, eta eskuan daraman burdinazko borra airean astintzen.

Hori entzutean, su inguruan zeuden gazte guztien begiek gizon bizardunak eskuan zeukan borra itxurako erremintari begiratu zioten. Gizonak, horretaz konturaturik, besoa altxatu eta borra airean astindu zuen. Inork ez zuen deus erran.

- A bai! –Eñaut hendaiarrak, isiltasun hura moztuz– Nik irakurri dut zerbait Alzateko Jaunaz. Euskara irakasleak Pio Barojaren liburu baten euskarazko itzulpena agindu zigun irakur genezan. Biziki polita zen.

- Eta laburra. –gehitu zuen Julenek.

Gaztearen burutazioa entzutean, denek barre ozena egin zuten. Kar, kar, kar! Kar, kar, kar!

Berako beste mutil batek hitza hartu zuen.

- Eta ezagutzen al duzue Xabier Letek Alzateko Jaunari egindako kantua?

Lapurtarrek buruaz eman zioten ezetza, eta orduan neska-mutil beratarrek kantatzeari ekin zioten batera:

*Alzateko Jaun
hor zaude nonbait,
zure lurrera itzultzeko zai.
Gure izatearen
testigu zuzena,
makurtu gabeko
zuhaitz lerdena,
desertuko haizeak
legortu ez zuen lorea,
itsasoaren kolorea
hor zaude zu!*

*Hamasei salbe,
hamalau kredo,
erderaz entzunagatik,
bazenekizun
hori ez zela
sekulan guretzat egin.
Urrezko dukate
eta dirua
ez dira engainu txarrak,*

*alde batera
apartatzeko
lehengo sinismen zaharrak.*

*Merkatarien aldamenera,
amildegian,
goitik behera,
ohar gabean
eroriko gera,
baina guztiok
jakin dezagun
bidea nondik
dijoan.
Alzateko Jaun,
hor zaude zu!*

*Bide batetik,
okertu gabe,
esan dezagun bertsoa,
ixil-ixilik
kanta ditzagun
euskaldunen sekretuak.
Herri zahar baten
oharpen haiek
nola ditugun galduak,
zenbat itxura
alda lezazke
eguna hil zuen
gauak.*

*Bidasoaren
ezker-eskuin,
udaberrian
lore gorriak,
ixilitako
ur izkutuak.
Mendetan zehar
kantu lagunak
noizbait latinez
lurperatuak,
laster berpiztu*

behar duguna!

*Larrun gainean
sorginen dantzak,
nabaitzen ditut
arratsaldean;
lurrak badaki
kontu hoiien berri.
Eta hor dago
ixil ixilik.*

*Alzateko Jaun
hor zaude nonbait,
zure lurrera
itzultzeko zai.*

Kantuaren azken hitzak entzutean, gizona altxatu zen eta ezkerreko horman zizelkaturiko marrazkia seinalatu zuen. Gero, eskuineko eskua altxatu eta borra astindu zuen airean. Ez zuen deus erran, baina irrintzi bortitz luze batez leize-zuloko isiltasuna urratu zuen:

- Aiaiiiiiiiiiii!!!

Momentu hartan, leize-zulora zetorren haize pufada batek sua itzali zuen, areto biribila iluntasunean utziz. Kanpoan ekaitzak jarraitzen zuen bere indar oroz.. Trumoi danbatekoak eta haize pufada ikaragarri handiak entzuten ziren. Tarteka, tximista baten argia leize-zuloko areto biribileraino iristen zen apal, indargabe. Horietako batean, probestu zuen Ibanek xirako sakelan gorderik zuen linterna ateratzeko. Eta, berriro ere, argitasuna egin zen areto hartan.

Neska-mutilak, bai lapurtarrak eta bai beratarrak ere, altxatu ziren. Denak hunkiturik zeuden. Haien begiek, urduri, gizona eta borra bilatzen zituzten, baina alferrik! ez baitzeuden areto hartan. Sua berriro piztu zuten, eta bere inguruan, elkarren ondoan eserita, gaua eman zuten. Goizaldeko lehen argi printzekin batera irten ziren leize-zulotik. Ordurako ateri zen. Kanpin dendak ezarri zituzten belar-sorora joan eta gauean zehar haizeak egindako triskantzak ikusi. Beratarrek lapurtarrei gauzak biltzen eta jasotzen lagundu zieten. Gero, denek batera, itzulbideari ekin zioten. Beherantz zihoazela, neska beratarteko batek Xabier Leteren bertsoak kantatzeari ekin zion, eztiki. Besteek miresgarritasun handiz entzuten zioten.

Alzateko Jaun

*hor zaude nonbait,
zure lurrera
itzultzeko zai.*

Azken bertsoarekin batera, irrintzi ozen luze salbaia entzun zuten.

- Aiaiiiiiiiiiii!!!

Burua biratu eta goi aldera begiratu zuten. Han goian, harkaitz zuri zorrotzaren gainean, zutik, eskuan zeukan borra airean astinduz, gauean ezagututako gizon bizarduna zegoen. Irintzia amaitzean, harkaitzetik jaitsi eta gazteen begiendako desagertu zen.

AXULAR HANDIAREN HOBIAN

*“Oren guziek dute gizona kolpatzen
azkenekoak du hobirat egortzen”*

Horrela irakur daiteke Sarako kanpandorreen idatziriko testuan eta tradizioak dioenez, Axular berak idatzitakoa da. Egia izan ala ez, gauza da ez zaiola arrazoirik falta hor emandako mezuari, eta eliza inguratuz dagoen hilerria ikusita, guttiago oraindik, horko hilarri lauburudunen azpian ehortzitakoek mezuaren egiatasunaren lekuko isila ematen baitigute.

Axular handiaren hilobia eliza barruan dago, aldare aldean, eta lurreko harlauzan idatzirik dagoen testuak honela ziurtatzen digu. Askotan egon naiz Sarako elizan, Axularren hilobiaren aitzinean eta beti nire barneko gogoetek XVII. mendera eramane, Axularren inguruko Sarako idazleen eskola famatu haren garaira. Nire begiek ezin izan dute garai zahar haietako lekuak, pertsonak eta gertaerak ikusi, baina nire gogoetek bai. Eta Sarako elizaren gela batean, mahai biribil baten inguruan jarririk, ikusi izan ditut Urdazubiko seme handia zen Axular, Sarako erretore ospetsua, eta bere inguruan, ezker-eskuin eserita, beste apez idazle lagunak: Joanes Etxeberri Ziburukoa, Argaiñarats, Gillentena, Haranburu, Haraneder, Hirigoiti, Materre, Pouvreau eta Voltoire. Axularrek, bere itzal handiaz eta bere ahots dotoreaz bilkura zuzentzen zuen.

Axularren itzala aipatu dudanez, kontatu egingo dizuet orain, behin, Lapurdiko apez batek honi buruz kontatu zidana. Axular handiak eta beste bi apez lagunak, Azkainekoa bata eta Senperekoa bestea, deabruaren eskolan ikasi behar zutela erabaki zuten. Deabruak baietz esan zien, erakutsiko ziela, baldin eta eskola bukatzean, hiruretako bat berarekin gelditzen bazen betiko. Hiru apezek baldintza onartu ondoren, deabruaren eskolan ikasteari ekin zioten. Osora, urtebete eta egun bat egin zuten eskola hartan, Sara eta Urdazubiren artean kokaturiko leize-zulo batean alegia.

Urtea eta egun bat bete ondoren, deabrua hitz egitera joan zitzaien: “Errandako denbora bukatu da. Tenorea da zuen hitza bete dezazuen!”

Axular handiak baietz erantzun zion, emandako hitza betetzeko prest zeudela. Axularrek Azkaineko apezari aurretik irteteko eskatu zion, leize-zulo hartatik kanpora joateko, eta ondoren, bere atzetik Senperekoari, eta azkenik, bera.

Deabruak, jarritako baldintza oroitu nahian, galde egin zien: Zuetako nor da orain nirea?

Eta Axularrek erantzun: Har ezazu nire gibeletik heldu dena!

Deabruak atzaparra luzatu eta ateratzeko zen azkena harrapatu zuen, zer harrapatu eta... Axularren itzala! Hori dela eta, handik aurrera Axular itzalik gabeko gizona izan zen.

Baina, badirudi hau ez dela Axularrek deabruarekin izandako pasadizo bakarra, nire apez lagunak beste hau ere kontatu baitzidan. Egun batean, Axular bere herrian, hau da Nafarroako Urdazubin, meza eman ondoren, bere amarengana hurbildu eta honela esan omen zion: Ama entzun iezadazu ontsa, gaur Aita Saindua deabruarekin ezkonduko baita!

Egun berean, Axular itzala ebatsi zioten deabruen leize-zuloko sarreraraino hurbildu zen eta bertan infernuan zen deabrurik trebeena berarengana ekartzeko eskatu zuen. Prakagorri izeneko deabrua bere aurrera iritsi bezain pronto honela galdetu zion: Zenbat denbora behar duk Erromara joateko? Eta Prakagorrik erantzun: Oren erdia joateko, oren erdia bertan atsedena hartzeko eta beste oren erdia itzultzeko. Osora oren bat eta erdi. Atsekabeturik Axularren honela erantzun zion: Hi ez haiz nik behar dudana deabrua!

Orduan, Axularrek beste deabru bat eskatu zuen, lehena aski trebea eta lasterra ez zelakoan. Eta horrela, berehala, Supindar izenekoa ekarri zioten. Galdera bera egin zion Axularrek: Zenbat denboraz egingen duk hik Erromarako joan-jina? Eta Supindarrek ihardetsi: Bortz minutu hara, bortz minutu han atsedena hartzen, eta bortz minutu itzultzeko. Axular piztu zen hau aditzean eta poz-pez honela erran zion: Hi haiz nik behar dudana. Eta aldamenean zegoen amari begira: Ama, ekar iezadazu nire geruza, Erromara noa eta!

Deabruaren bizkarrera igo eta hegaka Erroma aldera abiatu zen. Erromara iritsi eta han ikusi zituzten den-denak, dotore jantzita, eta janariz eta edariz bete mahai eder baten inguruan jarririk. Aita Sainduaren eta Satanen ezteiak ziren. Axularrek, kanpo aldetik atean jo zuen eta ireki zion andreari honela erran zion: Otoi, erraiozu Aia Sainduari mahaia neurtzeko bere kanakaz jakin dezagun zenbat luze eta zenbat zabal duen.

Aita sainduak horrela egin omen zuen, eta luzea eta zabala neurtzean gurutze sainduaren seinalea egin behar izan zuenez, bertan zeuden deabru guztiak zerraldo erori ziren, hilik. Bi minutu pasa ondoren, Axular Supindar deabruaren bizkarrera igo eta Urdazubira itzuli zen. Eta oraingoan honela erran omen zion amari: Ama, Orhi mendian elurra ari du! Eta amak, harriturik, honela erantzun: Baina seme, hik ba al dakik non dagoen Orhi mendia? Eta Axular: Bai ama, begira iezaiozu nire geruzari.

Ama aho bete hortz gelditu zen elurrez ziprztindutako geruza ikusi zuenean. Geruza zuri-zuria zegoen eta bere semea hain laster horren urrutitik etorrita. Eta hori Axularrek ez ziola inoiz aitortu Erromaraino joana eta itzulia zela.

Nire apez lagunak erran zidanez, Axularrek Aita Sainduaren ezteia eragotzi zuenez geroztik, apez guztiak ezkontzeko baimenik gabe gelditu dira. Hori izan omen zen Aita Sainduaren mendekua, eta nire aurrean, kontu-kontari nuen erlijiosoaren aurpegian irakurrita iruditu zitzaidanez, ez omen zuen debeku hau oso gogoko.

Duela zenbait urte, Saran izan nintzen, berriro ere, eta beti egin dudan bezala, Axularren hilobira hurbildu nintzen. Eliza ilun-iluna zegoen, oso.

Iluna eta bakartia, han ez baitzen arimarik ikusten. Edo behintzat, hori iruditu zitzaidan niri. Ohi bezala, buru belarri nintzen nire gogoetan. Konturatu gabe, eta bakarrik nengoelakoan, ozenki pentsatzen hasi nintzen:

Axular, zure hilobitik entzuten badidazu, erraidazu otoi, zure itzala berreskuratu zenuenentz? Eta nire harridurarako, ondoko ilunpeetatik ahots dotore batek erantzun: Axularrez galde egiten baduzu, ez xerkahobi honetan, hemen datzana ez baita Sarako erretore handia!

Hagitz aztoraturik ahotsa irtendako tokirantz begiratu nuen eta ilunpeetatik irtenaz apez pottoko bat ikusi nuen. Nor zaitut? –galdetu nion. Ez zaizu axola, Jesukristo gure jaunaren zerbitzari fidel bat, bertzerik ez duzu jakin behar –ihardetsi zidan lapurtera zaharkitu batez. Eta nor da orduan hobi honetan datzana? –galdetu nion harridura handiz– Herrian hilik aurkitutako eskale ezezagun bat! –apez pottokoak erantzun. Zer pentsa ez nekiela gelditu nintzen, eta orduan apezak honela kontatu zidan.

Urdazubi eta Sara artean bada leize-zulo sakon bat eta oraingo inork ez daki noraino iristen den. Batzuek diotenez, hortxe dago lurra eta zerua lotzen dituen zubi magiko miresgarria. Hortik igarotzen dena ez da hiltzen, beste mundura, hil gabe, bizirik iristen baita. Axular eta bere lagunak bazuten zubi honen berri eta behin bilkura batean zeudela hortik pasatzeko aukera zozketatu zuten beraien artean. Zozketan Axular izan zen irabazle. Eta horrela, ilunabar batean, Sarako eskolako apezak zubi miresgarrirantz abiatu ziren. Leize-zuloan sartu, eta kriseilu baten argiaren laguntzaz zenbait oren egin ondoren, zubiraino iritsi ziren. Estua zen oso, eta hondorik gabeko amildegi baten gainean zegoen zintzilikaturik. Axular bere lagunez agurtu eta aurrera joan zen. Zubia zeharkatu ondoren beste aldeko iluntasunean galdu zen. Axularrek, abiatu aurretik, hitz eman zien bere lagunei itzuliko zela, beste aldean, beste munduan, zeruan alegia, zer zegoen kontatzeko, eta liburu sainduetan kontatzen den bezain onuragarria bazen, berarekin eramateko.

Egunak igaro ziren, eta Sarako herritarrak bere erretoreaz galdezka hasi zirenez gero, herrian topatutako eskale baten hilotza hartu, Axularren arropaz jantzi, eta erretorea hilik zegoela zabaldu behar izan zuten. Sarako herriak ohore handiz hobiratu zuen aldare azpiko harlauza hartan. Urteak igaro ziren, eta Axular ez zen inoiz itzuli.

Horixe da apez bitxi hark Sarako elizan kontatu zidana. Dena aditu nuenean, ezin izan nintzen gelditu galdetu gabe: Eta nor zara zu hori dena jakiteko? Eta apezak erantzun: Orduz geroztik zain dagoenetako bat.

Eta deus gehiago erran gabe, gorputza jiratu eta elizako ilunpeetan galdu zen. Inoiz gehiago ez dut ikusi Sarako elizaren aldare aurrean topaturiko apez pottoko hura.

KARTA-BOTATZAILEAREN IGARKIZUNA

Gauza jakina da zein estimatua den Erribera aldeko klima lehorra itsasaldekoen artean. Jende askok denboralditxo bat egiten dute Erriberako edozein herritan beraien hezurren mesederako. Badira, noski, urrunago joaten direnak, Benidorm aldera, esate baterako, baina, hala eta guztiz ere, Erribera izaten da kostaldeko euskaldunon artean opor-gunerik preziatuenetakoa. Horietako aunitzek etxetxoren bat izaten dute bertan, bigarren bizitoki gisa, eta hor ematen dute urtero udako oporraldia. Horixe da Pello eta Mari Karmen senar-emazte donostiarren kasua. Donostian badute etxebizitza eder bat Amaraberri auzoan, baina uztaileko berotasunak sumatu orduko, maletak prestatu, autoa hartu, eta bi ordu eta erdiko bidea egin ondoren, Corellako kanpo aldean duten etxetxo moñoñoa sartzen dira. Jubilatuak izateak urteroko martxa hori errazten die.

Corellako etxetxoan uztail eta abuztuko lehen bi asteak egiten dituzte, donostiar petoak izaki, Donostiako Aste Nagusirako itzultzen baitira. Suzirien festa eta abenidako izozkiak maite dituzte. Eta gainera, ordurako, Erriberako klima ederrak beren erreuma eta artritis guztiak arrunt sendatuta izaten ditu. Horrela indarberriturik, espiritu gazteagoaz ekiten diote Aste Nagusiari.

Corellako etxetxoa moñoñoa izateaz gain, aski handixkoa da. Sukalde ongi ekipatua, bi komun, egongela zabala eta lau logela ditu osora. Garai batean, seme-alabekin hasieran, eta bilobekin geroxeago, betetzen zuten, baina jadanik, bakoitzak bere bizitza eginda duenez gero, urteak dira Pellok eta Mari Karmenek udako buelta bakarrik egiten dutela.

Aurten beste bi bikote doaz beraiekin. Josetxo eta Loli, eta Pernando eta Tomaxi. Lauak donostiarrak, lauak hirurogeita hamar urte inguruko jubilatuak. Lagun hauek ez dute Erribera ezagutzen eta bere klima osasuntsuaren beharrean doaz. Bikote bakoitzak bere autoa darama.

Uztailaren lehen asterako Corellako etxean daude seiak. Eta bigarren asterako Erriberako klimak bere miraria egin du hamaketan etzanda eguzkia hartzen aritzen diren sei jubilatutako donostiarren hezurrekin.

- Hau dun hau Mari Karmen! Gezurra zirudin, akabo nire erreuma nazkagarri hori! Dagoeneko, nire gazte urtetan baino hobeto nagon! –Lolik, eguzkitarako krema senarraren bizkarrean zabalduz.

- Bai neska! Ni ere primeran nagon! –Tomaxik– Aste Nagusiko zezen suzkoen entzierroan ateratzeko moduan.

- Ixo. Ixo neska! Ez al zara gogoratzen, joan den urteko entzierroan takoi bat hautsi zitzaizula eta Groseko Joan Mari herrera baino okerrago ibili zinela? A zer piura!
–Pernando senarrak.
- Kar, kar, kar....! –beste guztiek.
- Ixo Pernando! Zu eta zure ateraldiak! Den-dena ez duzu kontatu behar, senar-emazteen arteko sekretuak dira.
- Kar, kar, kar...! –beste guztiek, berriro ere.
- Txantxak alde batera utzita. –Lolik– Tomaxik arrazoia du. Bi aste eskas egin ditugu Corellan eta dagoeneko erromeria batera joateko moduan gaude denok.
- Ados. –Pernandok– Baina erromeriara baldin bagoaz, espartinekin joango gara, ez takoiko zapata dotoreekin, ez al da Loli?
- Babo alaena, beti nirekin sartu behar! Zer duzu orain nire zapaten kontra? –Lolik, hamakatik erdi altxatuta.
- Kar, kar, kar....! –denek.
- Eguzkitan aspertzen hasita nago, egun guztia etzanda. San Bartolomeko murruko sugandilak ematen dugu.–Pello anfitrioiak–
Eta zergatik ez goaz inguruetakoko herri batera paseo bat egitera?
- Oraintxe esan duk egia! –Josetxo lagunak– Atzo, herriko igeritokian nengoela herriko ezagun batek Zintruenigon karta-botatzaile famatu bat badela aipatu zidaan. Dena igartzen omen dik, baita neskazahar porrokatuenaren benetako adina ere! Zergatik ez goaz berarengana? Eska diezaiogun gure etorkizuna iragar diezagula.
- Eneee! Ez da egia izango! –Tomaxik, arrunt interesaturik– aspaldian nenbilen halako baten atzetik. Duela hamabost bat urte Gaintxurizketako Ramonirengana joan nintzen arazo bat nuelako eta den-dena igarri zidan.
- Eta atrebentzia ez badun, zer arazo huen sorgin horrengana joateko? –Lolik.
- Erne! Neurtu itzan hire hitzak. Ramoni ez zunan sorgina, karta-botatzailea baizik. Garai hartan arras kezkatuta nenbilen gure seme txikienarekin, hau da, Xabiartxorekin. Hogeita hamabi urte zituen ordurako eta ez zen neskekin ibiltzen. Beti parranda gora

eta parranda behera. Beldur nintzen... badakizue... Beste espaloikoa ote zen jakin nahi nuen. –Tomaxik, azaldutako azken hitzek pixka bat lotsaturik.

- Baina neska, hori dena gaur oso normala dun. –Lolik.
- Bai, bazekinat, baina garai hartan ez zunan horren normala. –Tomaxik.
- Eta azkenean, zer esan zizun karta-botatzaile hark? –Pellok, jakin-minez.
- Bada, urte berean neska batekin ezkonduko zela! –Tomaxik, ahotsaren intentsitatea jaitsiz– Eta horrela izan zen. Urte berean ezkondu zen penaltiz.
- Arrazoia dun Tomaxi. Nik aspaldian entzun dinat Zintruenigoko sorgin edo karta-botatzaile horren berri. Izugarri famatzen dituen. Berarengana joatea ez dun bat ere ideia txarra. –Mari Karmenek.

Handik ordu erdira Zintruenigoko bidean zeuden. Herrira iritsi, bertakoei galdetu eta eliza ondoko etxeetako batean bizi zela erantzun zieten. Erantzuna jaso orduko karta-botatzailearen ateko txirrina jotzen ari ziren. Txirrin, txirrin...! Lucia Bermejo. Echadora de cartas. Adivinadora zioen ate ondoko plakak. Handik minutu batera adineko andre batek atea zabaldu zien.

- Arratsalde on!
- Bai, eta zuri ere! –erantzun zioten sei jubilatuek batera.
- Zu al zara Zintruenigoko karta-botatzailea? –galde egin zion Mari Karmenek sei jubilatuen izenean.
- Bai, nik dakidala, Zintruenigon dagoen karta-botatzaile bakarra nauzue. Zer nahi duzue?
- Etorkizuna irakur eta iragar diezaguzula! –Lolik.
- Aurrera, aurrera! Pasa zaitzete itxaron-gelara, beste bezero batekin nago-eta. Hor pareta horretan dituzue adierazita bai zerbitzuak eta bai prezioak. Aukera itzazue txanda itxoiten duzuen bitartean.

Eta besterik esan gabe, itxaro-gela zabal batera eraman zituen. Gero, aurreko gelan zeukan bulegora sartu zen jubilatuek esperoan utziz. Itxaron-gela zabal samarra zen, era guztietako objektu esoterikoz apaindua. Baziren bi hontz diseatu begiak zabal-zabalik

zituztenak, sorginez eta munstroz betetako posterrak horma guztietan, eta gela erdian kokaturiko mahai biribilean igartzeko kristalezko bola horietako bat. Ate ondoan, hormatik eskegita, zerbitzu eta prezioen orria zegoen. Tomaxik ozenki irakurtzeari ekin zion gainerako lagunek ongi entzun ziezaioten:

Banakako zerbitzuak:

- Bost kartako irakurketa 25 euro
- Bederatzi kartako irakurketa 30 euro
- Joko handia 35 euro
- Ijitoen irakurketa 35 euro
- Laukia 40 euro

Taldeko zerbitzuak:

- Irakurketa xumea 30 euro
- Gurpil handia 40 euro

- Ene! –Mari Karmenek, prezioekin ikaratuta– Hau da Arzaken jatetxean afaltzea baino garestiagoa!

- Egia! –Lolik– Onena dugu sorginaren kontua bertan behera uztea eta beste nonbaitera joatea. Bestela, hemen larrutuko gaituzte.

- Mesedez, ez zaitetze koldarrak izan. Eska dezagun irakurketa xume bat talde osoarentzat eta kitto. Bosna euro, besterik ez dugu ordaindu beharko. –Tomaxik, temati.

- Orain zer galdetu nahi dion hik sorgin honi? Xabiertxoren espaloiaz kezkatu al hago oraindik ere? –Lolik.

- Txorakeriarik ez esan. Gure Xabiertxo gizon osoa dun, pirata xamarra, onartzen dinat, baina gizon osoa. Ezkonduta egon zen hiru urteetan bi ume egin zizkionan emazteari, eta orain bizi-alargun badun ere, lorez lore ibiltzen dun, gaur batekin eta bihar bestearekin. Ez din atsedunik ematen. –Lolik, erdi haserre Tomaxik egindako galderaz.

- Ixo, ixo denak! –Pellok, oilategiko karaka isildu nahian– Tomaxik arrazoia du. Honaino etorri bagara ezin dugu orain alde egin ezer eskatu gabe. Oso itsusia litzateke. Eska diezaigun talde irakurketa xume bat, eta gero joan gaitezen Tutera aldera otordu eder bat egitera.

- Ados! –denek.

Horrela ari zirela, itxaron-gelako atea zabaldu zen eta karta-botatzailea agertu.

- Zatozte mesedez! –esan zien.

Eta sei lagunen koadrila atzetik joan zitzaion deus esan gabe. Bulegora sartu zituen eta mahai biribil baten inguruan eser arazi ondoren, galde egin zien:

- Zer nahi duzue nik egitea?
- Talde irakurketa xume bat, mesedez. –Mari Karmenek, denen izenean.
- Zuek ez zarete hemengoak? –igarleak.
- Ez, donostiarrak gara. –Lolik– Oporrak pasatzen ari gara Zintruenigon eta lagun baten ahotik jakin dugu zutaz eta zure jardueraz. Animatu gara eta hemen gaituzu. Etorkizuna irakurriko al diguzu?

Gehiago esan gabe, igarleak kartak botatzeari eta irakurtzeari ekin zion:

- Denak jubilatua zarete eta erreumak eta artritisa jota zaudetenez gero, hona etorri zarete klima lehor baten bila.
- Bai azkarra! Hori dena begi bistakoa da. Horrela itsu batek ere irakur dezake! –Pernandok, guztiz sinesgaitz.
- Ixo, ixo Pernando! –Lolik, Mari Karmenek eta Tomaxik batera– Utziozu bere lana egiten.
- Hiru bikote zarete. –jarraitu zuen igarleak– Pozik bizi zarete zuen herrian. Bizimodua egin duzue eta Zintruenigon oso ongi pasatzen ari zarete. Hurrengo hilabetean zuen herriko festetara joateko irrikitan zaudete.
- Nork esan dio hori! –Pernandok.
- Ixo, ixo Pernando! –Lolik, Mari Karmenek eta Tomaxik berriro batera.
- Baina... –igarleak, bere hitzak bukatu gabe utziz.

- Baina, zer? –galdetu zioten jubilatuek.
- Oraindino ez zaitetze zuen herrira itzuli. Zuen atzetik itzal bat ikusten dut. Herioren itzala. –esan zien urkatu baten irudia zuen karta erakutsiz.
- Halakorik ez esan guri e! –Tomaxik, biziki beldurtuta.
- Ez, oraindino ez itzuli. Bestela, galduko zarete betiko. Herio zelatan daukazue sega eskuan duela, eta itzultzen bazarete zaaaas! Segaz moztuko du zuen bizia. –karta-irakurtzaileak.
- Eta zer egin dezakegu? –jubilatuek, biziki ikaraturik.
- Irtenbide bakarra daukazue. Joan zaitetze Uxueko Ama Birjinarengana eta eskaiozue bertako apaizari haren bedeinkapena. Hori egin gabe, ez zaitetze zuen herrira itzuli. Eta orain, mugi zaitetze berandu baino lehen.

Jubilatuen aldetik inork ez zuen deus gehiago galdetu. Isiltasuna egin zen nagusi karta-botatzailearen bulego hartan.

- Zerbait gehiago nahi?
- Ez, ez.! –jubilatuek.
- Orduan hogeita hamar euro.

Jubilatuek eskatutakoa ordaindu eta burumakur atera ziren kalera.

- Eta orain zer? Tuterara al goaz otordua egitera? –Pellok.
- Ixo, ixo! Ez al diozu sorginari entzun? Herioren itzala gure atzetik dabilkigu. Goazen Uxuera eta korrika gainera! –Mari Karmenek, beste guztiak bezain izututa zegoela.
- Uxueraino! Tokitan dago! Erriberri aldean! –Pellok.

Beste inork ez zion Pellori erantzun. Autoetan sartu eta txintik esan gabe, Uxuerako norabidea hartu zuten. Hiru ordu laurden geroxeago Uxueko elizaren aurrean zeuden. Sakristia bilatu zuten eta ate ondoko txirrina jo. Txirrin, txirrin...! Instantean apaiz zahar batek atea zabaldu zien.

- Arratsalde on! Zer nahi duzue? Ezkontza batendako eguna eskatu, agian.
- Ez jauna, ez. Zintruenigoko sorginak bidaltzen gaitu hona. Herioren itzala omen daukagu atzetik. Uxueko Ama Birjinaren bedeinkazioa emango al liguke berorrek? –Mari Karmenek.

Apaizak, besterik esan gabe, eskua altxatu eta banan-banan sei jubilatuen buruak ukituz honelako otoitza egin zuen:

- Uxueko Ama Birjinak libra bitza bekatari hauek Herioren hatzaparretatik. Horrela izan bedi. Amen.

Hitz horiek entzutean sei jubilatuek arnasa zabal hartu zuten. Herioren itzala uxatua zen.

- Mila esker. Mila esker! –errepikatzen zioten, behin eta berriro, sei jubilatuek.
- Mila esker. Jaungoikoak berori bedeinka beza! –Tomaxik, pozaren pozez.
- Agur. Beste bat arte! –denek.
- Ez dut uste horrelakoetarako gehiagotan etorri beharko duzuenik, nire bedeinkazioa sendoa izan baita. Hirurogei euro zor dizkidazue. –Apaizak jubilatuei eskua zabalik luzatuz.
- Eneee! –jubilatuek– Hirurogei euro diozu?
- Garestia da gero! –Mari Karmenek, gertatzen ari zitzaiena ezin sinetsiz.
- Hau iruzurra! Hauek uste dute Kutxako zuzendariak garela!
–Pernandok.
- Garestia baina eraginkorra! –Apaizak, aurpegia serio jarritz baina eskua zabalik luzatuta mantenduz.
- Izan beharko prezio horrekin! –Josetxok– Aita Santuaren bedeinkazioa baino garestiagoa da!

Gure sei lagunek dirua bildu eta apaizari eskura eman zioten.

- Tori!

- Mila esker eta goraintziak Zintruenigoko karta-botatzaileari. Jainko Handiak eta Uxueko Ama Birjinak bedeinka zaitzatetela! –Apaizak, besoa altxaturik eta jubilatua berrito bedeinkatzeko nahia erakutsiz.

- Ez, ez mesedez! Bedeinkazio gehiagorik ez! –sei lagunek, korrika apaizarengandik urrunduz– Ez dugu gehiago ordaindu nahi!!!

TXIRRINDULARI TREBEAK

Harkaitz eta Haritz auzoko lagunak dira. Biak hamasei urteko mutil gazte sendoak dira, aunitzetan elkarrekin jostaketan ibiltzen direnak. Eguberriko oporraldia zela eta, Olentzerok ekarritako bizikleta bana probatzen ari ziren. Horretarako beraien etxea inguratzen duen bidea aukeratu zuten pista gisa. Harkaitzek bira bat egin zuen etxea inguratuz eta ezkaratz aurrean zegoen lagunaren aurrera iristean esku bat manilaretik askatu eta altxatuz honela esan zion:

- Begira ezak Haritz, esku bakar batez!

- Hi bai txirrindulari trebea! –erantzun zion Haritzek lagunaren akrobaziaz gozatuz.

Berehalaxe Haritzen txanda iritsi zen. Honek ibilbidea bera egin zuen, hau da, etxea inguratu eta , berrito ere, ezkaratz aurrera itzuli zen. Eta han zain zegoen Harkaitz lagunaren aurrean bi eskuak manilaretik altxatu eta lehiakidearen marka gainditzen zuelako pozik esan zion:

- Begira ezak Harkaitz, eskurik gabe!

- Hi bai txirrindulari trebea! –erantzun zion Harkaitzek, lagunaren marka gainditzeko zer egin pentsatzen ari zela.

Hori buruan zuela, txirringa hartu eta ohiko ibilbidea egiteari ekin zion. Etxe ingurua egin zuen eta ezkaratzera iristean oin bat pedaletik altxatuz han aiduru zen lagunari esan zion:

- Begira ezak Haritz, oin bakar batez!

- Hi bai txirrindulari trebea! –Haritzek.

Haritzek bizikleta hartu eta ohiko ibilbidea egin ondoren ezkaratz aurrera iristean bi oinak altxatu zituen pedaleetatik eta garaipenaren pozaz gainezka honela bota zion esperoan zen lagunari:

- Begira ezak Harkaitz, oinik gabe!

Eta amorruren amorruz adiskideak erantzun:

- Hi bai txirrindulari trebea!

Harkaitzi galtzea ez zitzaion bat ere gustatzen. Harroxko samarra zen eta oraingoan erabateko garaipenaren bila abiatu zen. Etxea inguratu eta ezkaratzera iristean esku bat eta bi oinak libratuz lehiakideari esan zion:

- Begira ezak Haritz, esku bakar batez eta oinik gabe!

Haritzek, amorrua irentsiz, ohiko erantzunez ihardetsi zion:

- Hi bai txirrindulari trebea! Indurain ematen duk!

Baina Haritz ez zegoen galtzeko prest. Inola ere ez! Txirringa hartu eta Harkaitz erabat harriturik eta garaiturik utziko zuen akrobazia egiteko prestatu zen. Etxe buelta abiadura handiz egin zuen eta ezkaratzera iristean bi eskuak eta bi oinak libratu zituen. Garaipena berea zen, zalantzarik gabe! Baina une horretan bizikleta okertu egin zitzaion eta espaloiarene izkina batean zegoen trafiko seinalearen kontra jo zuen bete-betean. Txirringa eta guzti lurrera erori zen seko. Baina amorruek bultzaturik eta lehia buruan zuela, segituan jaiki zen eta besoak eta hankak luzatuz, eta halaber, odolez betetako ahoa zabalduz honela esan zion ikaraturik begiratzen zion lagunari:

- Begira ezak Harkaitz, hortzik gabe!

SHALA JAUREGIKO ANDEREA

Donazarreko kanpo aldean, plazatik hirurehun metrora-edo, Aintzilara doan bidearen eskuin aldean kokaturik, bada jauregi zahar bat, gaur fraideen ondasuna dena. Bertakoek Shala jauregia deitzen diote. Aipaturiko fraideek haur eta gazteentzako aterpe gisa darabilte. Hori dela eta, azken hamarkada hauetan, Shala jauregian, leku eta nazionalitate askotako gazte aunitz izan dira. Urte osoan zehar zabalik badago ere, udaberrian eta uda aldean, hartzen ditu bisitari gehien. Gazteak hogeitahogeita hamar bat lagunez osaturiko taldeetan joaten dira, eta ontsalaz, bizpahiru irakasle izaten dira beraiekin, begirale edota zaindari gisa.

Jauregia hiru estaietako eraikina da, ederra eta airosoa, baxenafar jauregien ohiko itxura errektangeluarra duena. Aurrealdean eskailera bat dauka eta leiho ugari hornitua da. Atzeko aldean, bigarren eskailera bat dugu. Haritz eta pago ederrezko basotxo batez inguratuta dago. Gibel aldean, hamabost metrora-edo, Errobi ibaiaren adarra den Lauribar erreka erriberak daude. Leku ederragorik!

Jauregi eta gaztelu guztiekin gertatzen den bezala, Shala jauregiari buruzko historia eta istorio aunitz korapilatzen dira: garai bateko jaun-andereak, gerrateak, hilketak, amodiozko kontuak eta arima erratuen berri ematen diguten kontakizunak. Bai irakurle, Shalako jauregian ere, badira mamuei buruzko kontakizun lazgarri eta beldurgarriak.

Herriko ostatuan, bertako aitatxi batek kontatu zidanez, jauregiko azken anderea gazte gaskoi noble batekin esposatu zen. Mutila noblea izateaz gain, biziki ederra omen zen, eta eskualdeko emakume guztien arretan bereganatu zuen. Shalako Anderea pozik bizi zen bere senarrarekin, baina, tamalez, aurki, haize eta mizto gaiztoak gaskoiaren amodiozko ibileren berri zabaltzen hasi ziren: Harroko Margaitarekin besotik helduta ikusia zutela, Jatsuko Maialenarekin ongitxo moldatzen zela, Uharte-Garaziko Ixabel Haiztoirekin musuka zebilela..., eta hamaika horrelako kontu. Hastapenetan, Shalako Andereak horrelako zurrumurruak bekaitzaren ondorioa zirela pentsatu bazuen ere, hiruzpalau urte pasatu ondoren kezkatzen hasi zen. Amak hamaika aldiz errana zion: Lauribar erreka soinu egiten duenean, bada elurra inguruko mendietan. Eta kontu horien ugaritasunak egiazko zerbait azaltzen zuela sinistera iritsia zen. Engoitik (8), senarraren itzal bilakatu zen. Non zen gaskoi ederra, han zen Shalako Anderea. Eta horrela, egiaren jabe egin zen. Zurrumuru horiek guztiak egiazkoak ziren. Ez zegoen eskualde osoan gaskoiarekin lizunkeriatan ibilia ez zen neska gazterik. Eta horrez gain, ba omen zeuden bizpahiru ume iturri garbikoak ez zirenak.

Hala eta guztiz ere, okerrena etortzear zen. Neguko hil batean, Iruñetik Pauera zihoan gazte noble batek aterpe eskatu zuen berarentzat eta bere segizioarentzat. Nafarroako erregeak sinatutako gutun bat zekarren bide-agiri gisa. Astebete egin zuten jauregian

aterpeturik. Mutil gazteak, bazkaldu eta afaldu Shalako jaun-andereen mahaian egiten zuen, bere nobleziak agindutako usadioari jarraiki. Atsegina zen, gartzetasunak ematen duen edertasunaz jantzia, eta Iruñea aldeko euskara kantariaz mintzo zen. Afalostean kontu-kontari aritzen ziren hirua beheko suaren inguruan. Gazteak gortearen berriak kontatzen zizkien eta Shalako jaun-andereek atsegin handiz entzuten zioten. Gaueko ordu ilunak labur egiten zitzaizkien halakoetan, baina azkenean, loak errenditzen zituen denak eta ohatzera eramaten. Lehenik, Shalako Anderea izaten zen erretiratzeko zena eta ondoren, handik oren zenbaitetara senarra eta gaztea.

Horrela zen gauero. Zazpigarren eguneko gauean ber gauza agitu zen. Shalako Anderea bere ohera erretiratu zen areto nagusiko beheko suaren inguruan, gorteko kontuez elestan, senarra eta Iruñeko gazte noblea utzirik. Ohatzean izan zen denbora luze senarraren zain, gau hartan haren faborearen beharra baitzeukan, baina denbora aitzinera zihoan arren, senarra ez zen lo-ganberan agertzen. Eri-edo egon zitekeelakoan, ohetik jaiki eta areto aldera abiatu zen. Han ikusi zuenak odol guztia kiskali zion. Senarra eta gaztea aretoko jarleku luzean etzanda, biluzik, besarkaturik, biak bat eginik, maitasunezko plazerei emanik zeuden. Eskualdeko neskekin izandako kontuak barka ziezazkiokeen, baina mutil harekikoa ez. Amorruez beterik, jelsiak itorik..., horma batean eskegita zegoen alimaleko aizkora hartu, eta bi aldiz pentsatu gabe, deusetaz konturatu gabe estu besarkaturik jarraitzen zuten gizonengana hurbildu, eta di-da azkar batez, gizonezko biak akabatu zituen. Berehala, odol putzu handi bat aretoko zolan zehar barreiatu zen, lurra heriotzaren gorritasunaz tindatuz. Gero, hormetako suzibate hartuz, su eman zion jauregiari.

Soldaduek eta mirabeek ezin izan zuten ezer egin ustekabeko su hura itzaltzeko. Etsipenez, kanpotik ikusi zuten Shalako Anderea leiho batean garrasi bizitan ari zela. Suak kiskali zituen bai jauregia eta bai anderea.

Denboraren poderioz, jauregia berreraiki zuten eta jaun-andere berriak txandatu ziren bertan. Dena den, jauregian beti gertatu izan dira ezbehar handiak eta baita hilketak ere. Herritarrek diotenez, usu ikusten omen dute Shalako Anderearen mamua zuriz jantzita, bere soldaduek eta mirabeek azken aldiz ikusi zuten leiho berean eta kanpo aldera begira.

Azken hilketa misteriotsua duela bospasei urte gertatu zen. Alemaniatik eskola giristino bateko berrogei bat lagun etorri ziren hamabostaldi bat jauregian iragaitera. Bigarren astean, irakasleetako bat hilik azaldu zen bere ohean. Labain bat zuen bihotzean sarturik. Arazo ekonomiko larriak pasatzen ari omen zen, eta bere buruaz beste egin zuelakoan poliziak ikertzeari utzi zion. Zenbait herritarren aburuz, Shalako Anderearen eskua ez zen hilketa horretatik biziki urrun.

2007ko azaroan, Irungo ikastolatik eta Lezoko institututik elkarrekin joandako ikasle tropel bat aterpetu zen jauregian. Hamabost – hamasei urtetako gazteak ziren gehienak, bizi-biziak, horrelako istoriotan sinisten ez zuten gaztetxoak, parrandak buruan eta telefono mugikorra sakelara, besterik ez zuten neska-mutil moderno horietakoak. Jon, Juanjo, Edu, Imanol eta Joseba irakasleek jauregiko gertakizuneha ohartu bazituzten ere, ez zieten inolako jaramonik egin, eta zaharren sineskeriak eta zozokeriak zirelakoan, garrantzirik eman gabe jarraitu zuten euren jostaketekin. Baina Mainer eta Beñat gaztetxoek, irakasleen hitzen gibelean egiazko zerbait egon zitekeelakoan, jauregiko bazter guztiak miazteari ekin zioten. Shalako Anderearen berri eman ziezaikeen arrasto bat xerkatzen zuten.

Lehen gauean, Mainerrek soinu bat entzun zuen, aldameneko ohean lo seko zegoen Beñat laguna esnatu, eta eskuko linterna baten laguntzaz, soinua entzun zen tokirantz abiatu ziren biak. Korridore luze batera iristean, eskuan suzi bat zeraman andre misteriozua ikusi zuten. Ederra zen arren, aurpegian tristura handia islatzen zuen. Poliki zebilen. Korridoreko azken atea igarotzerakoan, Mainerrek eta Beñatek begi-bistatik galdu zuten.

- Ikusi al duk, Beñat? Hori Shalako Anderea zuan! –Mainerrek, beldurra aurpegian nabarmen zuela.

- Zer esaten dun Mainer! Hi ere, gure irakasleen antzera, erotzen hasia haiz ala? Hemengo zerbitzarietako bat zunan! –Beñatek, mamuarena ezin sinistuz.

- Bai motel, kamisoiak jantzirik eta suzi bat eskutan! –Mainerrek, Beñatek esandakoari aurre eginez.

Hurrengo gauetan ez zuten ezer berezirik entzun edo ikusi. Kamisoi zuriaz jantzitako uestezko zerbitzariaren arrastorik ez. Eta galdetu bazuten ere, inork ez zien zerbitzari misteriozua haren berririk eman. Jauregian igaro behar zuten azken gauean Mainer eta Beñat, gainerako guztiak bezala, lotan ziren. Halako batean, Mainerrek karga handia sumatu zuen bere gainean. Arras ikaraturik esnatu zen, baina zama gainean senti bazezakeen ere, ezin zuen ezer ikusi. Bazirudien pertsona ikusezin bat zegoela bere gainean. Gaineratik kentzen ahalegindu zen, baina alferrik. Beldurrez, Beñati dei egin zion:

- Beñat, Beñat, esna hadi eta laguniezadak!

- Zer dun Mainer, amesgaiztoren bat?

- Ez, ez duk hori. Norbait zegoan nire gainean, baina oraintxe, hi iratzartzean, altxatu duk.

- Maider, hi erdi zoratuta gelditu haiz kamisoi zuriaz jantzitako zerbitzaria ikusi genuen gau hartatik.

- Bai, inork ezagutzen ez duen zerbitzaria, ezta?

Halako batean, soinu bat entzun zuten beraien aurrean. Maiderrek linterna piztu eta soinua sortu zen tokia argiztatu zuen. Han zegoen, beraien aurrean, zuriz jantzitako andere misteriotsua. Eskuko keinu batez, haren atzetik joateko agindu zien, eta bi gazteek, pijaman kaka eginda bazeuden ere, atzetik segitu zioten. Lehengo eguneko korridore berberetik barrena eraman zituen eta kanpora atera. Bi gazteek ikaraz eta harriduraz begiratzen zioten. Bihotzeko taupadak azkar eta fite sumatzen zituzten, baina jakin-min ezkutu batek zuriz jantzitako anderearen urratsen atzetik zeramatzan. Etxetik hurbil zegoen basora sartu ziren, beti andereari jarraituz. Bat-batean, anderea goroldioak eta belarrak erdi gorderik zeukaten harlauza baten gainean gelditu zen. Hori egiterakoan, harlauza alde batera lerratu zen eta lur barnera zeraman zurubia agertu. Anderea, txintik esan gabe, barrura sartu zen zeruan zegoen ilargi beteak ematen zuen argitasunaren laguntzaz.

Maiderrek eta Beñatek, lipar batez, elkarri begiratu zioten galdezka, eta buruaz egindako baiezkako keinuen adostasunez, gibeletik abiatu zitzaizkion, harrizko eskailera hartatik beheiti. Maiderrek eskuan zeraman linternak bidea errazten zien. Zurubi hura luzea zen, kiribildua. Bizpahiru minutu jaisten eman ondoren, ganbera zabal batera iritsi ziren. Erdian, harrizko mahai bat zegoen eta haren gainean burdinazko kutxatila bat. Mahai gibelean, zain eta beraiei begira, zuriz jantzitako anderea zegoen. Maiderrek, beldurra nonbait utzirik, galde egin zion:

- Nor zara zu? Eta, zer nahi duzu gutaz?

Zuriz jantzitako andereak, oihartzun handia sortzen zuen ahots hotz batez erantzun zien:

- Ni Shalako Anderea naiz, jauregi honetako jabea izan zena. Nire senarraren fideltasun-ezak burua zoratu zidan eta bihotza gorrotoz bete. Herrak eraman ninduen bi hilketa lazarri egitera eta bihotzez maite nuen jauregi hau erretzera. Eta nik, sutean bizitza galdu banuen ere, nire gogoa, hau da, nire espiritua preso da orduz geroztik jauregi honetan. Jadanik, lauhun urte inguru iragan dira orduz geroztik, eta akiturik nago. Nire gogoa libratu nahi dut eta argitasunerantz abiatu, baina horretarako laguntza behar dut. Zuek aukeratu zaituztet horretarako. Lagunduko al didazue?

Bai dardarati batez erantzun zioten bi gazteek.

- Orduan, ireki ezazue kutxatila eta bertan erraiten zaizuena egin. –Andereak, bozkarioa ezin disimulatuz.

Beñatek burdinazko kutxatila kontu handiz zabaldu zuen. Barruan esku-izkribu bat eta zilarrezko kopa eder bat zeuden.

- Irakur ezazue eta bertan erraiten zaizuena egin, otoi! –errepikatu zien andereak.

Beñatek esku-izkribua jaso eta ozenki irakurtzeari ekin zion:

Mezu hau irakurtzen duzuenek jakin behar duzue arima erratu baten askatzeko informazionea emaiten zaizuela. Bete ezazue eskatzen zaizuena eta erdietsiko duzue. Otoi, ez utzi nehoiz zilarrezko grialala lurrean. Horrela eginez gero, zuen arimak ere, eternitaterako kondenatuak izanen baitira.

Hau irakurtzean, Beñatek Mainerri ikaraz begiratu zion.

- Segi ezak otoi, segi izutu gabe. Aitzina. Bete ezazue eskatzen zaizuena. – andereak fermuki aginduz.

Beñatek ozenki irakurtzen jarraitu zuen:

Zoazte errekarara eta bertako urez zilarrezko grialala bete. Gero, itzuli ganbera ezkutu honetara eta grialako uretan bustitako eriez gurutze saildua egin ezazue libratu nahi duzuen arima erratuaren gainean, horrela argitasunezko bidea non den erakutsiko baitiozue. Hori guztia egin ondoren, grialala burdinazko kutxatilan berriro sartu eta irten zaitzete ganbera honetatik betiko. Zuen isiltasuna izan behar da gero, akordio hau betiko sinatuko duena. Jainko handiaren bedeinkazioa izan bedi zuekin!

- Gozak! –esan zuen Mainerrek, bi aldiz pentsatu gabe. Eskuan zeraman linternaz zurubia argiztatu zuen.

Beñat atzetik zebilkion, esku artean zilarrezko kopa eramanez. Zulotik ilki eta hurbil zen errekarantz abiatu ziren. Halako batean, Beñat zuhaitz baten zainarekin trabatu eta kilikolo, erortzeko zorian izan zen zenbait instantetan. Mainerrek besotik heldu eta zutik mantentzen lagundu zuen.

- Kopa erori al zaik? –galde egin zion kezkatuta.

- Ez!

- Eta lurra ukitu al du?
- Ez dinat uste.
- Eskerrak! –biek batera.

Deus gehiago esan gabe, erre kara iritsi ziren. Beñatek grial a urez bete eta zulorantz itzuli ziren. Barrura sartzerakoan, anderea mahaiaren aurrean belaunikaturik topatu zuten.

- Ekarri al duzue? –galde egin zien ahots hotzez.
- Bai, ekarri dugu! –ihardetsi zion Mainerrek.
- Egin ezazue, bada, esku-izkribuan erraiten zaizuen a. –andereak, bere bozkarioa ezin ezkutatu z.

Beñatek atzamarrak kopako uretan sartu eta anderea busti zuen bere gainean aita gurearen seinalea eginez.

- Mila esker aunitz. Zuei esker libre naiz. Jainko handiaren bedeinkazioa izan bedi beti zuekin! –esan zien andereak poztasun handiz.

Une hartan, andere zuria desagertu zen, eta zegoen tokian argi bortitz bat azaldu. Zurubitik goiti igo zen. Beñatek grial a burdinazko kutxatilan sartu, hura hertsu, eta argiaren atzetik zurubia igo zuten. Kanpora irteterakoan, harlauzak berriro lerratu eta zuloa itxi zuen. Ordurako, argi bortitza zeru ilun alderantz abiatua zen. Segituan, izarren artean galdu zen. Bi gazteak, isil-isilik, inor ez esnatzeko, berriro euren ohetan sartu ziren.

Goizeko bederatzietan, irakasleen ahotsek esnatu zituzten:

- Jaiki neska-mutilak, altxa! Gosaldu, gauzak bildu eta hamarretarako gure bila etorriko den autokarrean egon beharra daukagu. Hala, mugi denak!
- Baina, baina...! –Jon irakasleak Mainer eta Beñati begira– A zer begi-zuloak! Gauean ez al zaituzte loak hartu! Ene bada, zer esango dute zuen etxeetan halako aurpegiak ikusita.

AITAREN NEGOZIO BILERA

Koxepe Garat miarrota da, hau da, miarritzarra. Miarritzen sortua, Miarritzera ezkondua eta Miarritzeko banka batean lanean aritzen dena. Hiru seme-alaben aita. Langilea eta arduratsua. Hori dela eta, bankako zuzendaritzara iritsia da. Bere lana maite du, eta gogo handiz ekiten dio. Horrenbeste maite duena tarteka, negozio bilerak direla eta, kanpo aldera egin behar izaten dituen bidaiak dira. Halakoetan, aste pare batez, bere familiarengandik urrun izaten da, eta biziki tradizionalista denez, ez du etxetik urrun egon behar hori sobera maite. Mirentxu emazteak badu horren berri, eta horrelakoak hurbiltzen zaizkionean, senarra animatzen ahalegintzen da. Azken finean, hori haren lana, eta horretaz bizi da familia osoa. Emaztearen bultzadari esker, etxetik urrundu behar hori goxoago egiten zaio Koxepe gureari. Oraingoan, Alemaniara, Berlinera zehazkiago, joan beharra dauka Koxepe sufrituak.

- Agur aita, sarri arte! Bidaia on! –agurtu zuten hiru seme-alabek abiatzeko orduan.

- Anima Koxepe, anima bihotza eta arima! –Mirentxu emazteak senar penatuaren abiatzea goxatu nahian.

Eta horrela, penaren penaz, Koxepék negozio bidaia berria egiteari ekin zion. Egunak iragaiten ziren, bata bestearen atzetik, eta egunero, ilunabar aldean, Koxepék etxera telefonoz deitzen zuen familiaren berri ukaiteko.

- Txirrin, txirrin...!

- Gau on Mirentxu! Ongi al zarete?

- Gau on Koxepe! Nola zira? Zer moduz Berlinen? Gu, etxean, ongi maitea. Etxean ongi gira denok. Eta zu, nola zira laztana?

- Ongi, biziki ongi, baina erran behar badizut, arras akiturik. Buruko min galanta dut. Afaldu fite eta lotara noa, bihar goiz-goizean jaiki behar baitut. Badakizu lanak ez du barkatzen.

- Eutsi Koxepe, eutsi! Laster itzuliko zira-eta. –emazte hunkituak.

Hurrengo egunean, arrats aldean, Mirentxu afaria prestatzen ari zen bitartean, haurrak egongelan, Euskal Telebistako marrazki bizidunak ikusten utzi zituen. Handik hamar bat minutura Maitena, alabarik zaharrena, sukaldara sartu zen.

- Ama, ama! Aita telebistan da!
- Zer erraten duzu Maitena?, aita telebistan dela?
- Bai ama. Marrazki bizidunak finitu dira eta orain aita ari da hizketan.
- Hau ustekabea! Berlingen egin beharreko negozioaz arituko da!
- Ez ama, ez dago Berlingen, Espainiako Benidorm-en baizik. –neskatilak amari gauzak argitu nahian.

Mirentxuk ez zuen deus gehiago erran. Eskuak jantzirik zuen mantalean garbitu eta korrika egongelara abiatu zen bere senarra telebistan ikustera. Iritsi, ikusi eta hura ustekabea hartu zuena Mirentxu gaixoak. Erreportaje moduko bat ematen ari ziren eta han, Benidorm-eko hondartzan, hamaka batean etzanda senarra zegoen. Neska ilehori ponpoxa batek masajeak egiten ari zitzaion bizkarrean.

- Bai jaun-andreak, Euskal Herri osoa euriaren azpian dagoen bitartean, Mediterranioko kostaldean oso eguzki ederra daukate. Kostalde guztia turistez beteta dago, eta horietako asko euskaldunak dira. Benidorm-eko hondartza, esate baterako, euskaldunetz lepo dago. Entzun diezaiogun pantailan dugun gizonari. –zioen telebistako esatariak.

- Zu nongoa zara? –galde egin zion telebistan agertzen zen kazetariak hamakan, neska ilehori panpoxaren masajeak jasotzen ari zen gizonari.

- Ni lapurtarra niz, Miarritzekoa.

- Eta zeren bila etorri zara Benidromera?

- Iduzkiaren xerka, jakina! Estresatua nintzen eta pausa behar nuenez gero, hona etorri niz.

Masajeak ematen ari zitzaion neska lirainak, irribarre eginez, hurbildu eta musu eman zion Koxepe sufrituari, baita gizonak gogo onez erantzun ere.

Telebistako esatariak bere mezuarekin jarraitu zuen:

- Ikusten duzuen bezala, euskaldunok badakigu bizitzaz gozatzen. –Eta ordurako besarkada estu batez uztarturik zeuden gizon-emakumeei begira– On dagizuela! erranez bukatu zuen.

Momentu horretan, Mirentxuk, amorru handiz, telebista itzali zuen.

Gau hartan, iluntzean, egunero egiten zuen legez, Koxepek etxera deitu zuen.

- Txirrin, txirrin...!!!
- Gau on familia! Zer moduz zaudete?
- Gu ongi eta zu? –Mirentxuk.
- Ongi maitea, baina arras akiturik. Badakizu lanak ez du barkatzen. Bihar, arratsaldeko laurak aldera, Parmako aireportura iritsiko ni zeta berehalaxe, taxi bat hartu eta etxean izanen niz. Badut gogoia etxean zuekin egoteko eta pixka bat deskantsatzeko. Ainitz maite zaituztet. Bihar arte!

Hurrengo egunean, arratsaldeko lauretan hegazkinak lurra hartu zuen Parmako aireportuan. Koxepe hegazkinetik jaitsi eta taxi bat harturik, Miarritzeko bere etxerantz abiatu zen. Bostak aldean etxeko atean zen. Emazteak atea ireki zion, baina Koxepek espero zuen musua eman beharrean, maleta handi bat eman zion eskura honako hau erraten ziola:

- Hemen dituzu zure gauza guztiak: barneko galtzak, galtzerdiak eta guzti. Segi berriro Benidormera eta utz gaitzazu bake sainduan. –Eta atea kolpe bortitzez hertsiz, agurtu zen– Segi eta nehoiz ez itzuli! Adio!

SUGAARREN ITZULERA

Bai, bai! Lehen bazen Sugaar izeneko suzko suge arra, biziki gaiztoa zena. Mendietan bizi zen eta ekaitzarekin batera zeruan azaltzen zen harro eta gaizto. Haserretzen zelarik, belar-metak, zuhaitzak eta baita aunitzetan baserriak eta etxeak ere erretzen zituen. Behin hasiz gero ez zuen barkatzen. Ez zuen gupidarik.

Baina halako batean, eta oraindino inork ez daki zergatik, desagertu zen. Azkainen eta inguruko bazterretan bake ederra hartu genuen. – Horrela mintzatzen ari zena Gaxuxa Etxeberri zen, Errekaxilo etxeako alaba. Hirurogeita lau urte zituen eta aspalditik alargundua zen. Hiru seme-alabak Baionara lanera joan zitzaizkionez geroztik, bakarrik bizi zen bere etxean.

- Amatxi! –galde egin zion bere bi anaiatxoekin batera entzuten ari zen Ainara bilobatxo ttipiak– eta hori noiz gertatu zen?

- Duela biziki denbora luze, bihotza! Nik ez dut Sugaar nehoiz ikusi. Kontatzen dizudana nire amatxik niri, zuek bezain ttipia nintzenean, kontatutakoa da. Pentsa ezazu! –ihardetsi zion Gaxuxak Baionatik bere etxean udako denboralditxo bat pasatzera bi anaiatxoekin batera etorritako alabatxiari, umea nolabait lasaitu nahian.

- Eta gaiztakeriaren bat egin al zion zure amatxiri? –galdetu zion arrapaladan Beñat ttipiak.

- Bai, behin etxeako selaruari su eman zion. Baina bertan bizi zen katuetako bat mauka hasi eta nire aitatxi-amatxiek, horrela oharturik, sua itzali ahal izan zuten.

- Eskerrak! –erran zuen Eneko ttipitxoak–, bestela...!

- Bai, arrazoia duzu Eneko, eskerrak! Bestela suak Errekaxilo eta bere teilatupekoak erreko baitzituen, eta gu lauok ez ginateke orain hemen, beheko suaren inguruan, goxo-goxo hitz egiten.

* * *

Hamasei urte berantago, han zeuden, berriro bilduta amatxiren ohe aitzinean. Egoera arras ezberdina zen, amatxi Gaxuxa bere azken hatsa ematen ari baitzen. Negu gogorra igaro berria zuten eta Gaxuxa gaixoa arrunt eri eroria zen. Bizitza unez une ari zitzaion aldentzen, liparrez lipar. Errekaxiloko ganbera zabal hartan, amatxiren ohatzearen inguruan, Gaxuxaren Koxe, Mattieu eta Luixa seme-alabak zeuden, hauen senar-emazteak eta zazpi bilobak, beraien artean Ainara, Beñat eta Eneko anaia-arrebak.

Ordurako ez ziren garai bateko haurrak. Hogeita zazpi, hogeita borts eta hogeita bat urteetako gazteak baizik, eta bertzeekin batera, amatxiri azken agurra ematera etorriak ziren.

- Ura, ura..... otoi! –eskatu zuen halako batean Gaxuxak.

Ainarak, ohatzearen aitzineko mahaira hurbildu zen eta bertan zegoen botilatik baso bat ur bete zuen, gero amatxiri eraman zion. Luixa albak amatxi esertzen lagundu zuen eta gero, Ainarak ura edaten lagundu zion. Gogo handiz edan zuen eta edalontzia urrundua aurretik, Ainararen eskua tinko heldu eta belarrira honela erran zion:

- Ainara, ni banoan, baina joan baino lehenago gauza bat erran behar dinat.

- Zer da amatxi? –erantzun zion Ainarak, arras harrituta.

- Oroitzen al dun ttipia zinetelarik kontatu nizuena? –segitu zuen gero eta zailtasun handiagoz Gaxuxak.

- Sugaarrena diozu? –Ainarak.

- Bai horixe! Jakin behar dun duela bi urte Errekaxilora itzulia dela. Kasu eman behar duzue. Dena hasi zunan duela bi urte inguru, oilategia erre zenean. Gero leihoko gortinak, sutan zeudela, harrapatu nitinan denborez. Beste behin, kanpoan, eguzkiak idor zitzan, zintzilik nituen mihiseak kiskali zizkidanan. Eta duela astebete ondoko basoko zuhaitzen artean ikusi ninan.

- Ikusi zenuela diozu? –Ainarak, guztiz ikaratuta.

- Bai, basoan zunan niri tinko begira. Haserre zirudinan. Itzuli dun Errekaxilora eta ez dun geldituko baserria guztiz kiskali arte... Ainara, ez utzi Sugaarrek gure arbasoen etxea erre dezan. Ez utzi, otoi! Ni banoan... Ez utzi... Ainara, ez utzi...!

Hauek izan ziren Ainarak amatxi Gaxuxaren ahotik entzun zituen azken hitzak, Errekaxiloko alabak orduantxe eman baitzuen azken arnasa. Luixa alabak begiak hertsiki zizkion eta Beñat semeak ganberako leihoak zabaldu zituen Gaxuxaren izpiritua libre irten zedin. Gero, ganberan bildutako guztiek batera, Aita gurea ozenki errezatu zuten zendu berriaren arimaren alde.

Orduantxe erabaki zuen Ainarak Baiona uztea eta Azkaineko Errekaxilora bizitzera aldatzea. Sugaarrek baserria erre nahi bazuen, han egonen zen bera aurre egiteko eta haren nahikeria gaiztoa eragozteko.

Ainarak belarriak eskuez fermuki hertsu zituen eta korrika etxera sartu eta danbateko bortitz batez atea itxi zuen. Lehen, autoa kiskaltzen ikustean hormatutako odola, orain borborka sumatzen zuen zainetan, irakiten.

- Ez naiz Errekaxilotik joanen! Ez, ez naiz joanen! –bota zuen ozenki, Sugaar malapartatu hark entzun ziezaion.

Eguna argitzean, Xabi lagunak Donibane Lohizuneko asegurantza etxera eraman zuen autoz. Behin paper guztiak bete ondoren, Azkainera itzultzen ari zirela, Xabik honela erran zion:

- Ainara, badakit ez duzula gertatutakoaz gehiago mintzatu nahi, sobera minbera egiten zaizulako, baina nire ustez, badago gauza bat erran behar dizudana.

- Erran ezazu Xabi, erran ezazu! –erantzun zion Ainarak, poztasun handirik gabe.

- Ezagutzen duzia Azkaineko erretore berria?

- Nor? On Ramuntxo? –ihardetsi zion Ainarak, hizketan segitzeko gogo handirik gabe.

- Bai, berbera! Ez dakit jakinen duzun apezaz izateaz gain erdi aztia dela. Zenbaitek erran didatenez, erdi medium ere ba omen da.

- Eta? –Ainarak, gehiago jakin guran.

- Berarekin apeztegian ikasi eta ongi ezagutzen duen nire lagun batek kontatu didanez, sorgin kontuetan arras aditua omen da. Sorgindutako etxe zenbait garbitu du eta exorzismoetan ere ibilia omen da. Zer iruditzen zaizu berarengana bagoaz eta dena kontaktzen badiogu?

- Ez da ideia txarra. Goazen Xabi! Eraman nazazu On Ramuntxorena.

Erran eta egin. Oren laurdena igaro aitzin apeztekeko ate aurrean zeuden. Atean jo eta On Ramuntxo berak atea zabaldu zien.

- Egun on Jainkoak eman diezazuela lagunak! Zer nahi duzue?

- Berorrekin mintzatu. Hil ala biziko afera da. –erantzun zion Ainarak, esperantza berriez gainezka.

- Aitzina, aitzina! Sar zaitetze eta mintzatuko gara. –erretoreak.

Mahai zahar eta luze baten inguruan eseri eta berehalaxe Ainarak ordura arte gertatutako guztia kontatu zion. Apezak ez zuen aurpegian deus erakusten eta Ainarak bere azalpenekin bukatu zuen arte ez zuen txintik ere erran. Gero bai. Ahots hunkituaz honela erran zion:

- Kontatu didazun hori guztia arras larria da, larria eta gogorra. Jakin baneza zer egin! Emadazu egun zenbait, gogoeta eginen dut zuk kontatutakoaz eta zer egin dakidanean etxera joanen natzaizu.

Handik astebetara On Ramuntxo Ainararen etxean azaldu zen liburu lodikote bat eskuan.

- Egun on Jainkoak eman diezazula Ainara! Iritsi da eguna. Prest al zaude?
- Bai, erretore jauna. Berorrek nahi duelarik hasiko gara. Prest naiz.
- Ekar itzazu etxean daukazun eltzerik handienak eta goazen errekarra! –apezak.

Ainarak apez jaunak erran guztia bete zuen, lau eltze handi bilatu eta horiek eskuetan etxe ondoko errekarantz abiatu ziren biak. Urez bete eta bien artean etxera garraiatu zituzten.

- Orain zabal itzazu etxeko ate eta leiho guztiak, eta ondoren nire gibelean jarri.

Agindu bezala egin zuen Ainarak. Orduan On Ramuntxok latinez idatzitako liburu mardula ireki eta ozenki irakurtzeari ekin zion. Ainarak ez zuen tutik ere ulertu. Gero, urez betetako eltzeak bedeinkatu eta burruntzaliaren laguntzaz etxeko bazter guztiak zipriltzinez bustitzen hasi zen, sukaldea, lo-ganberak, komuna... Selaurura iristean gauza bera egin zuen eta une hartan zurrumbilo beltz bat aireratu zen. Suzko suge arra zen. On Ramuntxok burruntzalia urez bete eta suge arra busti zuen.

- Hoa, hoa hemendik betiko Sugaar! Eta ez itzuli nehoiz! –erran zion ozenki.

Momentu zehatz hartan suge arrak alde egin zuen etxeko leiho batetik urruntasunean galtzeko. Gero, On Ramuntxok leiho eta ate guztietako kanpo aldean gurutze gorri bana margotu zuen.

- Ez da itzuliko! –erran zion Ainarari begietara begiratuz.

Eta horrela izan zen. Urteak fite igaro ziren. Ainara eta Xabi Errekaxilora ezkondu ziren. Gaur hiru seme-alaben guraso dira, eta nehoiz ez dute Sugaarren berririk ukan. Hori bai, nehoiz ez dituzte On Ramuntxok etxeko ate eta leiho guztietako kanpo aldean margotutako gurutze gorriak ezabatu.

GENEVIÈVE ETA PAXKAL

Lagunok, denok ongitxo dakigun bezala, gaur egungo maskotak ez dira betikoak, edo agian hobeto erranik, betiko maskotez gain, gaur egun oso bestelakoak daude. Zenbait etxetan tarantulak eta antzeko armiarma handi higuigarriak ikusten ahal dira. Muskerrak, kaiman-kumeak, urtxintxak eta horrelakoak, gero eta gehiago ikusten ahal ditugu, eta baita urrundik ekarritako era guztietako sugetzarrak ere.

Paxkal Hardoi uztariztarra da sortzez, baina Baionako Saint Léon ospitalean egiten du lan erizain gisa. Berrogeita bost urte ditu eta ezkongabea da. Baiona Ttipian, Pannecau karrikan bizi da, bakarrik, edota hobeto erranda, Geneviève-rekin. Geneviève potolo samarra da, zintzoa eta isila. Afrikatik ekarria da, bederatzi metro luze neurtzen du eta pitoi arrazako beste sugetzarren antzera jatun samarra. Paskalek duela sei hilabete erosi du Baionan ireki berria zen animalien saltoki batean. Paskal Hardoik biziki maite du eta bere gosea ederki asetzen du animalien saltokian erosten duen elikagai bereziaz. Tarteka untxiak, saguak eta horrelakoak ere ekartzen dizkio harrapa eta jan ditzan.

Paxkalen bizimodua biziki lasaia da, etxetik ospitalera eta ospitaletik etxera. Horrela igarotzen ditu egunak eta asteak. Hori dela eta, Genevièven konpainia izugarri estimatzen du. Telebista ikusten aritzen denean, Geneviève berarengandik hurbil, lurrean kiribilduta, egoten da.

Gauean, ohera sartzean, Geneviève ohe ondoan kiribilduta egoten da. Isila den arren, tarteka zurrunka modukoa egiten du, baina horrek ez du Paxkal inolaz ere asaldatzen. Eta horrela egunak joan eta egunak jin. Azken bolada honetan Geneviève arraro samarra dago. Ohikoa baino erneago. Eta aunitzetan telebista ikusten ari denean, Paxkalek berari irmo begira harrapatzen du, bere miztoa dantzatzen. Eta horretaz gain, azken hiru egunetan, goiz-goizean, ospitalera joateko esnatu denean, Geneviève, lurrean kiribilduta egon beharrean, ohean, bere ohean, luze-luze etzanda topatu du, esna, eta berari irmo begira, beretaz maitemindurik balego bezala. Hori izanen dea? Paxkalek ez daki zer pentsatu.

- Zer gertatzen zain potxolo? Aspertzen haiza,, hor lurrean, bakarrik? –Baina Genevièvek ez dio erantzuten, eta betiro berari irmo begira jarraitzen du.

Okerrena bart izan da. Paxkal berandu samar oheratu zen. Lagunekin afaritxo bat eginda zuen, eta hori dela eta, berant samar joan zen ohera. Paxkalek ez du, ontsalaz (6), alkoholik eta kaferik edaten, baina afaria Bordeleko ardo onaz bustirik egin zuen, eta bizpahiru kafe hartuta itzuli zen etxera. Ohean etzanda zegoela, egun argiz baino esnatuago zegoen, ohean bueltaka eta bueltaka, lo egin nahian eta ezin. Eta horrela orenak j joan eta orenak jin. Halako batean, gorputz hotz bat sumatu zuen bere ondoan.

Geneviève zen. Aurreko egunetan bezala, isil-isilik, lurretik ohatzera igoa zen. Paxkal jauzi batez ohean eseri zen. Eta sugetzarrak, gorputz erdia altxatu zuen, nagusiaren buruaren garaieran jartzeko. Irmo begiratzen zion gure donadoari .

- Zer dun Geneviève? Hotz haiza? Badakin ez dudala maite hi ohera igotzea. Jaitsi hadi oraintxe bertan! Entzun al dun? Jaitsi hadi nire ohetik!

Baina kasurik ez. Azkenean, indarrez puxatu behar izan zuen ohetik lekutzeko (11). Handik oren batera edo, loak Paxkal hartu zuen. Goizeko 6,30etan iratzargailuak jo zuelarik, Paxkal gurea, neka-neka eginda, esnatu zen, eta ondoan, ohean luze-luze etzanda, eta berari irmo begira, Geneviève zegoen, berriro ere.

- Berriro hemen? Zer erran ninan gauean? Ez dinat bat ere maite hi ohera igotzea. Azken aldia izan dadila, bestela haserretuko naun. Genevièvek begirada mantenduz eta miztoa dantzatzuz ihardetsi zion.

Zortzietarako lanean zegoen. Eskerrak lanegun laburra zuela, gaueko parrandaren eraginez arras akituta baitzegoen. Eguerdirako kanpoan zen, arratsalde hura bere atsedean eguna baitzen. Fite bazkaldu eta Baiona Ttipian famatua den Hiriart al baitariari dei egin zion.

- Bai, arratsaldeko 4,30ak aldera joanen natzaizu etxera.–erran zion Hiriart jaunak.

Telefonoz agindu bezala, 4,30etarako, Paxkal Hardoiaren etxean zen.

- Arratsalde on Hiriart jauna. Mila esker ainitz etortzeagatik – Agurtu zuen Paxkalek.

- Arratsalde on zuri, Hardoi jauna. Garrantzi handiko afera zela erran didazu, eta hori jakinik, ez nintzen etxean lasai gelditzen ahal. Geneviève zer duzu, hilzorian ala?

- Ez, ez. Ez da hori Hiriart jauna. Geneviève osasun onez dago, nehoiz baino osasuntsuago.

- Orduan? –al baitariak, arrunt harriturik.

- Ez dakit nola kontatu jauna. –Paxkalek, bere burura azalpen zuzena ekarri nahian.

- Tira ba gizona. Hasi kontari.–Hiriart al baitariak, jakin-minez.

- Geneviève bitxi samar dabil azken egun hauetan. Beti izan da zintzo eta fidela, eta betidanik adiskidetasun handia erakutsi dit, baina azken bolada honetan, gauean, lo egiten dudanean, nire ohe ondoan kiribilduta egon beharrean, ohera igotzen zait, isil-isilik, eta nire ondoan luze etzanda egoten da, esna-esna eta niri irmoki begira. Goizero esnatzen naizelarik, horrela topatzen dut, niri begira eta miztoa dantzatzuz. Zuri zer iruditzen zaizu Hiriart jauna, ar baten beharrean al dago? –bota zuen Paxkalek, musu-matrailak lotsaren lotsaz gorritzen zitzaizkiola.

Albaitariak ezin izan zuen barre bat egin gabe egon, eta barre-algara amaitzean honela ihardetsi zion:

- Hardoi jauna, zer ar eta zer ar-ondo? Geneviève ez dago zutaz maitemindurik. Pitoia da, eta pitoiek harrapakin handi bat jan aurretik, egun zenbait ematen dute neurtzen. Horixe zen Geneviève zurekin egiten ari zena. Neurtzen ari zintuen.

* * *

Baina Paxkal Hardoiren eta Geneviève sugetzarraren istorioa ez zen hor amaitu. Albaitaria joan bezain pronto, Paxkalek sugetzarra erosi zuen animalia-dendara dei egin zuen, eta inolako erreklamaziorik egin gabe, bertara itzuli zuen. Gau hartan Paxkalek lasai egin zuen lo, inolako amorosarik gabe.

IPUIN IRAKURKETA IZABAKO HILERRIAN

Euskal Haziak ikastolako 4. DBH-ko ikasleak kurtso bukaerako bidaia burutzen ari dira Pirinioetan barrena. Katalunian hasi ziren Bartzelona bisitatu ondoren, Aragoikoa egin berria daukate eta orain, txangoari amaiera emateko Euskal Herriko Pirinioetan dira. Erronkaritik Zuberoara pasa nahi dute Belagoako bidetik barrena. Gaua Izabako kanpinean pasatzen ari dira. Osora berrogeita bost ikasle eta hiru irakasle: Aitor Illarregi euskarakoa, Jokin Muñoz soinketakoa eta Itziar Larregi ingelesekoa. Taldea aski jatorra da eta portaera ona eduki dute orain arte, Bartzelonan pixka bat harrotu baziren ere. Bederatziatarako bukatu dute afaltzen eta bidaia hauetan beti gertatzen den bezala, ikasleek lo egitera joateko presarik ez.

- Gaur ere, betiko leloa daukagu. Ez dute lotara joan nahi. –Aitor irakasleak.
- Baina Aitor, goiz samar duk lotara joateko. Hi gaztea hintzela lotara joango al hintzateke? Ez diat uste. Parranda egin nahiko huke hauek orain egin nahi duten bezalaxe. –Itziarrek, irribarre zabal bat ezpainetan duela.
- Itziarrek arrazoia dik, Aitor! Gaueko bederatziak dituk. Goiz samar gure gaztetxoak ohera erretira daitezten. –Jokinek.
- Bai, badakit goiz samar dela eta inor ez dela erretiratzeko prest egongo. Baina bost egun hauetan, gauero egin dute horrela, eta ni nekatzen hasita nago. Ezin al digute bake pixka bat eman? Nik lasai ederrean egoteko gogoa daukat. –Aitorrek, erretxinduta.
- Ez zaik arrazoirik falta, Aitor! Baina uler ezak gure gaztetxoek zer edo zer egin beharra daukatela lotara joan aurretik. Gorputza unatu beharra zeukatek. Bestela okerragoa izango duk. Hor ibiliko dituk gauean hitza eta pizza, etengabeko jostaketan eta azkenean, guretako inork ezin izango dik lorik egin. –Jokinek.
- Nik gustura hartuko nitek kafe bat Izabako ostatu batean, ikasleak nolabait ahantziz. Potrotaraino naukatek! –Aitorrek.
- Baita nik ere! –Itziarrek, Aitorrek proposaturiko kafeaz inbidiatuta.
- Ideia bat bururatu zait! –Jokinek– Zoazte biak kafetxo bat hartzera, eta nik, bitartean, ikasle guztiak paseo bat egitera eramango ditut.
- Paseo bat gauean? Nora? –Aitorrek eta Itziarrek, arrunt harriturik.

- Ez dituk Idoiako Ama Birjinarengana eramango, ezta? Urruti zagok, eta gainera pirata hauek ez ditek deus errespetatzen. –Itziarrek.

- Ez neska, hago lasai! Ez ditinat Idoia aldera eramango, urrutiegi zagon, kanposantura baizik. –Jokinek.

- Kanposantura? Hi erotu haiz! –Aitorrek, soinketako irakasle gaztearen irtenaldia ezin ulertuz.

- Baina Jokin, zer esaten ari haiz? –Itziarrek, arras kezkatuak.

- Lasai zaitetze biak. Ez da sargoriak sortutako ero kolpea, ongi pentsatutako ideia baizik. –Jokinek, bere bi lankideak sosegatu nahian.

- Ni gaztea nintzela –segitu zuen soinketako irakasleak– Nafarroa Behereko Donazaharrera joan nintzen nire ikastolako irakasleek antolatutako txango batean. Han ere, hemen bezalaxe, ikasleok txol asperturik ginen gaueko orduetan. Hori dela eta, irakasleetako batek herriko hilerrira eraman gintuen eta bertan beldurrezko ipuinen irakurketa ozena egin genuen. Hara joan ginen gehienok pijama jantzita. Beldur pittin bat pasatu bagenuen ere, aitortu beharra daukat esperientzia polita, ezberdina, izan zela guretzat, beti gure oroitzapenetan iraun duen horietakoa. Antzeko zerbait egingo genuke gaur gauean. Aitor Aranaren Ipuin lazgarriak izeneko liburua ekarri dut eta bost bat ipuin irakurriko nizkieke. Zer iruditzen?

- Bitxia! –Itziarrek, zer pentsa ez zekiela.

- Bitxia, bai! –Aitorrek– baina denbora berean polita. Piztitxo hauek baretzeko moduko ekitaldia iruditzen zait. Gustatuko zaie, bai! Hik, Jokin, eraman itzak ikasleak hilerrira beldurrezko ipuinak irakurtzera, eta Itziar eta biok bitartean kafetxo bana hartuko diagu herriko ostatu batean.

Pentsatu eta egin bat izan zen. Jokinek ikasleak bildu eta egin beharrekoa azaldu ondoren, hilerri aldera eraman zituen. Aitor eta Itziar, aldiz, Izabako karrika estuetatik barrena sartu ziren gustuko ostatu baten bila. Kanposantura sartu aurretik, Jokin irakasleak errespetua eskatu zien ikasleei:

- Orain barrura sartuko gara gure ekitaldia burutzera, baina sartu aurretik gogoratu nahi dizuet ez garela hona etorri bertan betiko loan daudenen bakea urratzera, hau da, hildakoen isiltasuna profanatzera, ipuin irakurketa bat egitera baizik. Eduki ezazue hau garbi zuen buruetan. Begirunearen kontra edozer egiten duzuela, gogor zigortuko dut eskolako arautegia aplikatuz. Beraz, mesedez, porta zaitetze ongi!

- Eta mamu bat agertzen bazaigu? –Aiora ikasleak, gaizto aurpegia jarriz.

- Ixo Aiora! Ez hadi giroa nahasten hasi! –irakasleak, haserreturik.

Eta gehiago esan gabe, artalde osoa sartu zen hilerrira irakaslearen atzetik. Marmol zurizko gurutze eta hilobien artean pasatzean hotzikara sumatu zuen batek baino gehiagok. Beldurraren lehen zimikoa sumatzen hasiak ziren. Erdi zabalik zegoen hilobi baten aurreko zabalgunean gelditu ziren, irakasleak horrela aginduta.

- Hementxe! Hementxe egingo dugu gure irakurketa, denok biltzeko moduko tokia dago-eta! Hurbil zaitetze, otoi!

Irakaslea erdi zabalik zegoen hilobiaren bazter batean lekutu zen eta ikasleak inguruan jarri zitzaizkion. Inork ez zuen deus ere esaten. Beldurra airean ikus zitekeen.

- Hurbil zaitetze gehiago mesedez, tokia badago eta! Eta zuek jaitzi zaitetze hortik! –irakasleak, hilobi baten gainean igota zeuden bizpahiru ikasleei aurpegi txarraz begiratur.

Azkenean, ikasle guztiek irakaslea inguratu zuten biribil bat eginez. Jokinek, ozenki eta okasiorako ahots lodia jarriz, beldurrezko ipuin irakurketari ekin zion. Lehena irakurri zien. Ikaragarria zen, zorbiz eta odolez betetakoa. Inork ez zuen txintik ere esan. Bigarrena gero. Hau ere, guztiz lazarria zen, hilketa odoltsu bat zehazkizun osoz kontatzen zuena. Ordurako ikasle gehienak galtzetan kaka eginda zeuden. Ondoren, hirugarrena irakurri zien eta geroxeago laugarrena. Osora, ordu batez, zazpi ipuin labur irakurri zizkien. Beldurrak isilarazten zituen denak. Momentu haietan soinu ttipi bat entzutea aski izango litzateke ikasle guztiak korrika eta arrapaladan irten zitezen. Zorionez, ez zen horrelakorik gertatu. Bukatzen ari zirenean, Mattin ikasle zintzoak irakaslearen hitzak moztu zituen:

- Jokin, barkatu!

- Zer Mattin? Ez ezak moztu mesedez! –irakasleak, bere azken azalpena eman nahian.

- Baina, Jokin...! Ikusi al duzu erdi zabalik dagoen hilobi horretatik ateratzen den lurruna?

- Zer lurrun eta zer lurrun-ondo! Utz iezadak bukatzen! –Irakasleak, gero eta haserreago.

Baina hori esaten ari zitzaiola, aipatutako hilobi aldera begiratu zuen eta... zur eta lur geratu zen ongi itxi gabe zegoen hilobiko zirrikituetatik ateratzen zen lurruna ikustean. Laster usain astun batek bazterrak eta gure lagunak hartu zituen. Irakasleak, ustekabearen aurrean, erretirada agindu zien ikasleei.

- Lasai zaitetze! Ez da ezer! Usteltzen ari den gorpu baten kiratsa, besterik ez. Goazen kanpinera! Baina lasai, korri egin gabe.

Eta horrela, gehiago esan gabe, aldendu ziren denak bai hilerritik eta bai kirats sarkor hartatik.

* * *

Gau hartan nekez egin zuten lo, kanposantuan ikusitako lurruna burutik ezin kendurik baitzeukaten. Azkenean, gehien-gehienak lozorroan zirenean, garrasi lazgarri bat entzun zuten. Denak esnatu eta altxatu ziren zer gertatzen ari zen jakin nahian. Kanpin-denda baten aitzinean Maddi izeneko neska topatu zuten negar bizian. Inguru hartan hilerrian sumatutako kirats ustel sarkor bera usain zezaketen.

- Zer gertatu zain? –galde egin zion Aitor irakasleak.

- Ez didazue sinetsiko, baina lotan nengoela, norbait sumatu dut nire gainean. Karga zela eta, esnatu naizenean, bi zaplaztako eman dizkit aurpegian, eta gero tiraka eta arrastaka, dendatik atera nau zaku eta guzti. Garrasi egitean utzi nau. –kontatu zion ikasleak kontrolaezin zituen malko artean.

- Lasai hadi neska! Amesgaizto bat izan dun, besterik ez! –Aitor irakasleak, neska lasaitu nahian– Ala, sartu berriro dendan eta egin ezan lo lasai. Bihar lasaiago hagoenean, hitz egingo dinagu. –eta ondoan begira ari zitzaizkien bizpahiru neska lagunei– Zuek lagun ezazue Maddi gaua pasatzen. Bihar arte!

Pixkanaka-pixkanaka, denak beraien dendetara itzuli ziren, baita hiru irakasleak ere. Bidean zihoazela:

- A zer garrasia! Oraindik belarrietan daukat. –Itziarrek.

- Amesgaiztoa izan da, besterik ez! –Aitorrek.

- Ez dakit zer esan. –Jokinek, zalantzez beterik– Maddiren dendaren inguruan zegoen kiratsa hilerrian usaindu genuen berbera zen.

- Sugestia! –Aitorrek– Nik ere sumatu dut usain ustel hori, baina zakur baten gorotza izango zela pentsatu dut. Eta izatekotan horrelako zerbait izango zen.

* * *

Hurrengo eguna Izaban eman zuten. Eguraldi sargoritsua zenez gero, arratsaldean udal igeritokira joan ziren freskatzera. Arratsalde biribila atera zitzaien eta ikasleek izugarri gozatu zuten. Haien jostaketak eta haien algarak! Hiru irakasleek ikasleen mugimenduak ikustatzen zituzten. Beraiek ere, freskatzeko aukera baliatu zuten bainu ezin hobea hartzeko. Zazpitan denak jantzen hasi ziren kanpinera itzultzeko asmoz. Hiru irakasleak, ordurako arropaz aldatuta, igeritoki bazterrean ari ziren azkeneko ikasleak bertatik atera nahian.

- Ala, atera eta jantzi zaitetze lehenbailehen, bost minutu barru alde egingo dugu eta!

Halako batean...

- Ezin du izan, atzoko kiratsa da! –esan zuen Itziarrek, izua ezin ezkutatuz.

- Egia! Usain ustel berbera dun! –Jokinek, Itziarren hitzak berretsiz.

- Ez zaitetze ergelak izan! Usain txarra badago, egia!, baina gorotz puska bat egongo da inguruetan, edo agian guk zanpatua daukagu.
–Aitorrek.

Horrela hiruak sandalien zolak begiratzen hasi ziren. Horrelakoetan ari zirela Itziar igeritokira erori zen. Berehalaxe, Aitor eta Jokinen artean uretatik atera zuten.

- Zer gertatu zain? Zorabiatu haiz, ala? –Aitorrek, arras harriturik.

- Ez, ez! Ez da mareaziorik izan. Norbaitek indar handiz bultzatu nau. –Itziarrek, arropa bustia xukatuz.

* * *

Afaldu ondoren ikasleak lozaketara erretiratu ziren. Hiru irakasleak, denda aurrean gelditu ziren solasean.

- Hilerrian egon ginenez geroztik, hemen hagitz gauza biziak gertatzen ari zaizkigu. –Jokinek.

- Bai, egia! Ni beldurtzen hasita nago. –Itziarrek.

- Superstizioak, lelokeriak! –Aitorrek– Kasuistika hutsa, besterik ez da.

* * *

Gaua inolako arazorik gabe eman zuten. Goiz-goizean altxatu ziren denak gosaltzeko asmoz. Dendak jaso eta motxilak bildu egin behar zituzten Belagoatik barrena Zuberoara igarotzeko. Ordurako, txoferra prest zegoen. Asaldatuta zirudien.

- Egun on! Autobusa prest dago. –esan zien irakasleei.

- Baita zuri ere! –irakasleek– Ondo egin al duzu lo?

- Lo ongi, baina gauean aluren batek autobusa marrazkiz beterik utzi dit. Ikusi nahi al duzue?

Deus esan gabe, irakasleak txoferraren atzetik, autobusa aparkaturik zegoen tokira hurbildu ziren. Leihoetako kristaletan eta paretetan gorrizko marrazkiak ziren.

- Baina, zer da hori? –Itziarrek, eskuak masailera eramanez.

- Ikur satanikoak dira! –Jokinek, ikaraturik.

- Zer ikur sataniko eta zer demontre! Ikasleren batek egindako txorakeriak dira! –Aitorrek.

- Ez diat uste! –autobus gidariak– Ez dik ematen gaztetxo batek egindako gauza denik. Begira ezazue hemen!

Eta esku batez autobusaren atzeko aldean idatzitako mezua irakurri zien: Erne ibili! Gero eta haserreago nauzue! zioen testuak.

- Betiko usain ustela! –oihu egin zuen Jokinek.

Txoferrak eta beste bi irakasleek buruaz baieztatu zuten.

* * *

Gertatutakoa ahantzia ez, baina nolabait gerorako utzia, goizeko bederatzi eta erdietarako denak autobusean zeuden. Irakasleek ikasleak zenbatu zituzten artzain batek bere ardiak zenbatzen dituen bezala, eta denak barruan zeudela ikusirik, abiatzeko agindua eman zuten. Eta horrela, Belagoatik barrena Zuberoara igarotzeari ekin zioten. Hura edertasuna! Hango belazeak, hango gailurrak, hango errekak, hango basoak...! Eta behin Zuberoan sartuz gero, hango amildegiak!

Den-denak poz-pozik zihoazen, den-denak txoferra izan ezik, autobusean egindako margoek eta idatziek suminduta baitzeukaten. Hiru irakasleak ere, ez zihoazen horren pozik, gogoan baitzeukaten autobusean idatzitako mezu mehatxagarria. Ikasleak, berriz, eroaren gisa zeuden, kontu-kontari, pozez gainezka... Haietako aunitz txoferrak autobusean jarritako musika entzuten ari ziren, gehienak, berriz, amaigabeko blagan. Halako batean, Alkondarie izeneko kantua entzutean, ikasle guztiak ozenki kantari hasi ziren buila handia sortaraziz.

*Erdi lo hartu nindun
zure telefono deixek
ez dau inor etxien
eta, pasatu zaitez.*

*Geldi egon ezine
sartu eustan gorputzien
eta nerbioxo pareu
segundo bakarrien.*

*Ta prakak ezin sartu
helduko nazela berandu
ezin lotu alkondarie
eskilarak beherantz banoie.*

*Eskutik heldu ginen
eskuak sutan ziren
di-da gure artien
sartu zan rollotxue
portaleko atien
lehenengo kalentoie*

*igogailu barruen
fuera lotsa guztixek.*

*Ta prakak ezin kendu
ezin izango dot inoiz ahaztu
ezin kendu alkondarie
sofaren ganien etzunde.*

Bai, dudarik gabe, gustukoa zuten. Bizkaierazko letra entzutean, irakasleek elkarri begiratu zioten, ezpainetan irribarre maltzurra loratzen zitzaielarik. Amildegia gero eta handiagoak ziren, baita bihurguneak gero eta itxiagoak ere. Autobusa poliki zihoan. Halako batean, gidariak maniobra bortitz bat egin zuen eta autobusa amildegira hurbildu zen arrisku handiz. Ikasleak garrasika hasi ziren beldurrez.

- Zer gertatzen zaik? –galde egin zioten irakasleek maniobra hura ezin ulertuz–
Ongi al haiz?

- Bai, bai! Ongi nago. Baina bolantea trabatu edo ez dakit zer gertatu zaion...
Bazirudien norbaitek bolantetik tira egiten zidala amildegi aldera. –txoferrak, arrunt
ikaraturik.

Inork ez zuen ezer esan. Autobusak aurrera jarraitu zuen. Musika-gailuko kantuak bere leloaz segitzen zuen:

*Beldur barik
irrintzika
erropak etxien ziher botata
ta zu bilusik.*

*Zoro moduen
maitatu ginen
eta probatu gendun estixen
musturrek sartunde.*

*Zoro moduen
jarri ginen
ta gozatzen heldu zan goiza.*

*Erdi lo hartu nindun
zure mutilaren deixek:
kotxie aparkatu dot*

laster gorantza noie.

*Ta prakak ezin sartu
ezin ixengo dot inoz ahaztu
ezin lotu alkondarie.*

*Eskilarak berantz banoie.
Agur esan barik
banoie, banoie.
Deitu nahi dozunien.*

*Eta zoro moduen
jarriko gara
ta probatu gendun estixen
musturrek sartunde.*

*Zoro moduen jarriko gara
ta gozatzen goiza helduko da
alkarrereri lotuta.*

Baina orain inork ez zuen kantatzen eta irakasleen ezpainetan ez zen lehenagoko irrikik ikusten. Isil-isilik zihoazen denak. Beldur zimiko bat sumatzen zuten bihotzean. Batabatean, amildegi gaineko bihurtune itxi batera iritsi ziren. Hura ongi hartzeko gidaria maniobratzen hasi zen, baina orain ere, lehengoan bezala gertatu zitzaion. Bazirudien esku ikusezin batek bolantea jiratzten zuela amildegi aldera.

- Ezin dut ezer egin! Trabatatu da! –garrasi egin zuen txoferrak, desesperazioak jota.

Eta horrela, autobusaren aurreko bi gurpilak hutsune zabal hartara sartu ziren. Autobus barruko guztiek batera egin zuten garrasi. Baina alferrik, ordurako autobusa amiltzen ari baitzen. Handik minutu eskas batzuetara autobusak amildegiko hondoa jotzean sortutako burrunba entzun zen, eta horrekin batera, hautsezko eta kezko hodei beltz moduko bat altxatu zen amildegiko hondotik, geroxeago, pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan zena. Gero, isiltasuna nagusitu zen hango bazterrez.

* * *

Handik bi egunetara mendizale batzuek, ustekabean, tragediaren arrastoak topatu zituzten eta Mauleko jendarmeei deitu. Burdin pusken artetik gizagaixo haien gorpuak atera zituzten. Berehalaxe, istripuaren balizko arrazoiak bilatzeari ekin zioten, autobuseko gibel aldean euskaraz idatzitako testuari inolako garrantzirik eman gabe.

LANDARBASOKO LEIZE-ZULOAN

Errenteriako aduriztarren baserrian ohitura izan da beti tximiniaren inguruan kontu-kontari aritzea. Neguko gau luzeetan, gehienbat, afalosteko orduak beheko suaren berotasunean ematen zituzten hitz eta pitz, garai bateko historiak eta istorioak kontatzen. Batez ere, aitona Mañuel izaten zen horretan aritzen zena. Buru bizkorreko gizona zen, beti kaskoan txapela jantzita zeramana. Baserrian lau biloba zituen, hamasei urteko Jon, hamabost urteko Mikel, hamahiruko Xabier eta hamabiko Miren ttikia. Eta denak maite bazituen ere, neskabila zen haren kuttuna.

Hainbeste ordutan kontatutakoa zinez anitza eta aberatsa zen, era guztietako gertakizunak, kondairak eta baita asmakizunak ere. Tartalo, Mari, Sugaar, Basajaun eta horrelakoen inguruko pasadizoak ondo ezagutzen zituzten, baina gehien maite zutena, baseritik berrehun metrotara zegoen Landarbasoko leize-zuloen ingurukoa zen. Hamaika aldiz entzuna zioten arren, ez ziren inoiz hori entzuteaz aspertzen. Eta gainera, hura kontatzean, bere mesanotxetik harri zapal bat ateratzen zuen eta haren laguntzaz kontakizuna azaltzen zien. Harri zapala arbel beltza zen, eta bertan zenbait ikur ezezagunen artean bazen labirinto itxura hartzen zuen marrazki berezi bat.

Aitonak kontatzen zuenez, Landarbasoko leize-zuloak kobez eta korridorez osaturiko sare zabal baten zati ziren. Garai zaharretako euskaldunek eginak omen. Bertan baziren sekretu zenbait ongi gordeta, barruan, lurraren sakontasunean kokaturiko areto misterioetsuetan. Harri zapala liburutegi erraldoi batera joateko giltza omen zen. Aitonari bere aitona emana zen eta bere aitonari haren aitona. Behin, bilobei aitortu zenez, liburutegi hartan egona zen bere aitonarekin batera. Bilobek ere joan beharra zeukaten familiaren gurgila osatzeko. Berari omen zegokion korridore horietatik barna eramatea, baina osasun txarrak eragozten zionez gero, bilobek egin beharko zuten liburutegirainoko bidea bakarrik. Baldinbetan!

Behin eta berriro kontatzen zuenez, duela urte luze, lurrak eta herriak oraingoak ez zirenean, gauzez lurra oraingoa ez zen ilargiak argitzen zuenean, ekialdetik etorritako gizon gerlariak azaldu ziren Europan. Gizon haiek ez zuten gupidarik ezagutzen eta suz eta odolez estali zuten kontinente osoa. Ez zuten kultura maite, izadia mespretxatzen zuten, herriak sarraskitzen zituzten... Hori ikustean, garai zahar haietako euskaldunek euren jakituria gordetzea eta iraunaraztea erabaki zuten. Horretarako egin zituzten Pirinioak eta Alpeak lotzen omen dituzten lurpeko galeria eta areto erraldoiak. Horren sare handi zabala izaki, badaude hamar bat sarrera-irteera Europa osoan. Horietako bat Landarbasoan. Urte luze dira galeria horietatik barrena ez dela inor abenturatzen, behi galduren bat ez bada. Horietako batzuk Landarbasotik sartu eta Nafarroako lurretan atera omen dira. Hori beti jakin eta kontatu izan da eskualde honetan. Baina besterik ez.

Aizpitarte izeneko zuloan ere ibili izan dira aurre-historiako margotze paleolitikoak aztertzen, baina kito, inor ez da oraindino sakoneko galerietan sartu.

- Egun batean, liburutegi ezkutura sartzen zaretenean, jarrai iezaiozue harri zapalean agertzen den geziari, berak, zuzen-zuzenean, bertaraino eramango baitzaituzte. –esana zien behin baino gehiagotan.

Baina, tamalez, tximini ondoko kontakizun haiek bukatu ziren aitona Mañuel laurogeita bost urterekin hil zenean. Herentziaz lau bilobei txapela eta harri zapala utzi zizkien. Jonek, bilobarik zaharrenak, gorde zituen.

Handik bost urtetara, lau bilobek bilera bat egin zuten, gurasoei deus aipatu gabe. Haien asmoa zen, udako oporrak baliatuz, aitona azaldutako liburutegi ezkutura iristea. Gurasoei oinez Aralarreko San Migel baselizarainoko joan-etorriko ibilaldia egitera zihoazela esan eta horren ordez, Landarbasoko zulotik barrena abiatu. Elikagaiak eta hornigaiak erosi eta espedizioa kontu handiz prestatu zuten. Egun aukeratua iritsi zelarik, gurasoez baserriko atarian agurtu eta bideari lotu zitzaizkion. Leize-zulora iristean, kopetan ezartzen diren linterna horietakoak atera, buruan jarri, eta harri zapalak markatutako bideari jarraitu zioten. Jonek, behin eta berriro, harria aztertua zuen, eta ordurako jarraitu beharreko bidea buruz zekien.

Han ibili ziren zutik hasieran, makurka gero. Lurrean zeuden botilek edota hormetan margoturiko amodiozko mezuek korridore haiek aski ezagunak zirela zerakusten. Ordu erdi baten buruan, areto moduko batera iritsi ziren. Han, ezker-eskuin, baziren korridore aunitz. Zein zen hartu behar zutena? Geziak markatzen zuen korridorearen ordez, pareta sendo bat zegoen.

- Hau ez dago ondo! –bota zuen Jonek ustekabea– Bideak aurrera jarraitzen duela dio, baina hemen horma hau daukagu bidea moztan.

- Utzidak harria, Jon! –eskatu zion Mirenek.

Jonek harri zapala Mirenen eskuetan utzi zuen eta neskak arreta handiz aztertu zuen.

- Begira ezazue! Hemen, bidearen hasieran eguzki moduko ikur bat dago marrazturik. Bila dezagun horrelako ikur bat! –erakutsi zien hiru nebei, atzamarraz eguzki itxura zuen ikurra harri zapalean seinatuz.

Bazterrak ongi miatu ondoren, Mikelek paretaren batean, harriaren izkina batean topatu zuen. Ongi gorderik zegoen.

- Hementxe, hementxe dago!

Lau anaia-arrebak Mikelek esandako tokira hurbildu ziren eta Mirenek berretsi zuen:

- Bai, ikur bera da!

Paretan grabaturiko eguzkia bitxia zen, erdiguneko biribila sakona baitzuen. Hura ikustean etorri zitzaion burura Joni aitona Mañuelek askotan esana ziena:

- Harri zapal hau beharrezko giltza izanen zaizue liburutegi ezkukuraino iritsi ahal izateko.

...eta gogoetatik ateraz, neba-arrebei esan zien harri zapala erakutsiz:

- Hauxe da gure giltza!

Harria ongi aztertuz gero, izkinetako batean luzapen biribil moduko bat zegoela ikusi zuten. Jonek, gehiegi pentsatu gabe, eguzkiaren erdigunean sartu zuen. Eskularru bat eskuan sartzen dugun modu eroso berean, sartu zen luzapen biribil hura eguzkiaren erdiguneko zuloan. Eta hori egiterakoan, korridorea oztopatzen zuen horma sendoa, emeki-emeki igo zen. Lau gazteek aurrera, hormak libre utzitako korridoretik barrena, jarraitu zuten. Igaro ahala, horma, soinu handirik gabe, euren bizkarrean jaitsi zen.

- Eta gero, hemendik irteteko, nola egingo dugu? –galde egin zuen Xabierrek, arrunt ikaraturik.

- Lasai! –Mirenek– Hemen harri zapalean beste eguzki bat markatzen dik. –eta bazter ilun batean bilatu ondoren– Begira ezazue! Hementxe dago ateratzeko zanpatu beharko dugun eguzki ikurra. Ez dago inolako arazorik! Dena programatuta dago harri zapalean. Aitonak arrazoia zuen. Harria da korridore hauetarako giltza!

Mirenen hitzak entzutean hiru nebek lasaitasun ederra hartu zuten. Gero, Jon buruan zihoala, bideari lotu zitzaizkion, berriro ere. Ordu beteko ibilaldia egin ondoren, korridore haiek gero eta zabalagoak zirela ikusi zuten.

- Honek Donostiako hiribidea ematen du! –bota zuen, halako batean, Mikelek.

Eta harrigarriagoa zena, korridoreetako hormen, zolaren eta sabaiaren materiala ez zen jadanik ordura arteko harria, hagitz bestelakoa baizik. Erdi metala, erdi kristala zirudien. Argitasun handia ematen zuen, eta ondorioz, buruan zeramatzatzen linternak itzali behar izan zituzten.

- Hau harrigarria da! Sinestezina! –Jonek, aho zabalik zegoela– Ematen du kanpoan gaudela. Hau argitasuna!

Zabalgune batean hamaiketakoa egin ondoren, aurrera segitu zuten. Ordurako, korridoreak ez ziren korridore, zuhaitz eta landare bitxi tropikalez josiriko zabaldietan barrena zihoazen bideak baizik. Sabaia ere, ikaragarri garaia zen, eta kanpo aldeko zeruaren antza hartzen zuen. Erreka baten ondoan, basurde itxurako pizti taldea ikusi zuten, eta zuhaitzetako adarretan baziren txioka ari ziren txori eta hegazti ugari.

- Nire begiez ikusten ari naizelako ez balitz, ezinezkoa dela esango nuke! –bota zuen Mikelek, begiak eskuez igurtziz.

- Baina,... esna al gaude? –Mirenek.

- Amets kolektibo batean gaitun! –erantzun zion Xabierrek arrebari.

- Zer amets eta zer amets-ondo! Hau dena erreal da! Jarrai diezaiogun harri zapalak markaturiko bideari. –Jonek, zuhur.

Bi ordu beranduago, itsaso moduko batera iritsi ziren. Arrainak jauzika zebiltzan lehorretik gertu. Urruntasunean mendi gailur elurtuak ikus zitzaketen. Sabaia desagertua zen eta gainean zeukatenak zerua zirudien. Eguzki itxurako bat bazen zeru ganga hartan. Itsaso bazterrean bazkaldu eta atsedean hartu ondoren, harri zapalak markaturiko bideari jarraitu zioten. Horrela, bost orduko bide luzea egin zuten. Han baziren basoak eta errekek, aintzirak eta mendiak, oihan trinkoak eta ibai zabalak..., eta zerua, edo zelako ganga hura. Harrigarria bazen ere, iluntzen hasita zegoen. Geroxeago, ilargiaren eta izarren itxurakoak goi ilunera agertu ziren.

- Baina...! Gu non gaude, lur barruan ala lur azalean? –Xabierrek, ikusten ari zena ezin sinetsirik.

- Agian, konturatu gabe, leize-zulotik atera gara! –Mirenek, azalbide logikoa bilatuz.

- Ez dinat uste. Bazirudin barruan gaudela! –Jonek.

Halako batean...

- Begira, begira han! –Mikelek, eskuaz eskuin alderantz seinalatuz– Gizonak dira eta guregana datoz!

Gainerakoek burua Mikelek esandako tokirantz biratu zuten eta beraiengana hurbiltzen ari ziren hiru gizonak ikusi. Berehalaxe haien ondoan zeuden. Arropa bitxi dotoreak janzen zituzten.

- Gau on! –esan zien hiruetako zaharrenak nafar kutsuko euskara eder batez– Mañuel Adurizen bilobak al zarete? –jarraitu zuen gero, eta gazteen baiezko erantzuna entzuterakoan– Aspaldian ginen zuen zain! –jarraitu zuen.

- Gure zain, diozu? –Mirenek, urduritasuna ezin ezkutatzu.

- Bai, zuen aitonaren aitona hemen izan zen gurekin eta baita aurrekoaren aitona ere. Belaunaldiz belaunaldi kontaktua mantendu dugu zuekin. Zuek bakarrik falta zineten zikloari amaiera emateko. Zuek zarete guregana etorri beharreko azken aduriztarrak. Hemendik aurrera kontaktu hau ez da beharrezkoa izanen. –ihardetsi zion gizon zaharrenak.

Anaia-arrebak isildu ziren gizon haren hitzak ezin ulertuz. Isilune baten ondoren, Jonek galde egin zion:

- Galdera bat egin behar dizuet.

Gizonak, burua goitik behera mugituz, galdera egiteko gonbitea egin zion.

- Non gaude, lur barruan ala lur azalean? –segitu zuen Jonek.

- Zuen zientzien arabera barruan, baina jakin behar duzue hori ez dela errealia, benetan, unibertso paraleloen eta zulo dimentsioanizdunen izatean barrua eta kanpoa nahasten baitira. Gauza bera dira, alegia. – Gizonak erantzun.

Jon eta gainerako senideak lehen bezala gelditu ziren, hau da, gizon haien adierazpenak bat ere ulertu gabe. Hiru gizonetako beste batek, eskuaren mugimendu baten bidez, haien gibeletik joateko agindu zien, eta horrela egin zuten. Animaliez betetako oihan sakon batera sartu ziren, hura zeharkatu zuten hamar bat minutuz, eta horrela iritsi ziren esfera erdi baten itxura zuen eraikinera. Han baziren pertsona gehiago beraien zain. Mahai luze eta zabal baten inguruan esertzeko eskatu zieten. Han baziren hamar bat gizon-emakume eserita. Bidean topatutako hiru gizonak ere bertako jarlekuetan eseri ziren. Mahaiburuan bazen emakume eder bat, denon burua ematen zuena. Denak esertzean hitza hartu zuen.

- Ongi etorri, lagunak. Denbora luze zain izan gaituzuen arren, bagenekien etorriko zinetela. Joana IV.a nauzue, intramunduko euskaldunen erregina. Baina hitz dezagun solasa gerorako, eta afal dezagun.

Hori esan bezain pronto, alboko ateetatik ateratako neska-mutil gazteek afaria zerbitzatu zieten.

- Begira ezan Miren! Hemen denetik zagon! –Xabierrek, mahai gainean ikusten zuenak liluraturik.

- Bai mutil, Arzaken jatetxean gaudela zirudik! –Mirenek, mahai oparo hura harritasunez begiratuz.

Gau hartan, jan eta edan gogotik egin zuten. Afalostean, logela apain garbietara eraman zituzten.

- Bihar goizean hitz egingo dugu! –agindu zien erreginak agurtzean.

Hurrengo egunean, goiz-goizean, gosaltzeko esnatu zituzten. Horretan ari zirela, emakume misterioitsu hura azaldu zitzaien.

- Egun on lagunak! Ongi egin al duzue lo?

Lau anaia-arreben baiezko erantzuna entzun ondoren, haren gibeletik segitzeko eskatu zien. Korridore zabal batetik barna eraman zituen eta berehalaxe piramide itxura zuen eraikin erraldoi batera sartu ziren. Hura zen aitona Mañuelek aipatutako liburutegia. Ikaragarri handi zabala zen, eta liburuz gainezkaturiko apalez beteta zegoen. Milioika liburu zeuden. Arlo guztietakoak eta diren eta izan diren hizkuntzez idatzitakoak. Aretoz areto eraman zituen papiroz eta pergaminoz betetako areto ikaragarri zabal batera iritsi ziren arte. Areto erdian bazen aldare moduko bat eta bertan bazen euskaraz idatzitako urrezko liburutzar bat. Axularren Gero idazlanaren bigarren liburukia zen, gaurko Euskal Herrian galdutzat ematen dena.

- Atzo aurreratu nizuen bezala –erreginak, azalpenak eman nahian– zuek zarete hona etorriko zareten azken aduriztarrak, hemendik aurrera ez baitugu kontaktu honen beharrik izango. Aro berriaren ateetan gaude. Inperioak eroriko dira laster, materialismoan oinarrituriko ideologiak desagertuko, izadiak bere balioa berreskuratuko du aurki, pertsona eta herri libreten tenorea hurbil daukagu, Euskal Herri berri, aske eta euskaldun bat berehala gauzatuko da. Planeta osoa indarberrituko da.

Lau gazteak harrিতuta zeuden, ez zioten gauza handirik ulertzen. Bitartean, emakumeak erdiguneko aldarean zegoen urrezko liburutzarra zabaldu zuen eta ozenki irakurtzeari ekin zion:

- Lur barneko euskal mundura etorritako lur azaleko euskaldunek kanpo aldeko Euskal Herrira eramandako Biziaren Zuhaitza igaliz betetzen denean, aro berriaren garaia izanen da, biziaren eta naturaren aldeko iraultzaren tenorea. Euskal Herrian hazitako zuhaitzak babeseta askatasuna hedatuko ditu mundu osoan zehar.

Eta gero, lau anaia-arrebei begira, galde egin zien:

- Ulertu al duzue?

Lau gazteek burua esker-eskuin mugituz ezezko erantzun isila eman zioten. Orduan, erreginak lorategi eder batera eraman zituen. Han hamaika zuhaitz ederren artean, bazen ezagutzen ez zuten zuhaitz sendo, lerdin eta garaia.

- Hauxe da biziaren zuhaitza, gure munduan bakarra. Axularrek landatu zuen euskaldunon intramunduan bere itzala berreskuratu ondoren. –eta gehiago esan gabe, eskuan zituen guraize handiak erabiliz, adaxka bat moztu eta Mirenen eskuan jarri zuen– Hartu, eraman ezazue zuekin kanpo aldeko Euskal Herrira. Landa ezazue zuen baserriko lurretan, berehalaxe haziko zaizue-eta. Eta ez ahantzi! Igaliz betetzen denean aro berriaren tenorea izanen da. Orain zoazte etorri zareten bidetik, lur barneko euskaldunok aro berriaren zain gaude-eta. Zoazte eta Axularren itzalak babes gaitzan!

Eskatu bezala egin zuten. Bide beretik itzuli ziren. Itzulbidean harri zapala izan zitzaien, berriro ere, gida eta giltza. Harri zapalaz zabaldu zuten korridorea oztopatzen zuen hormatzarra eta horrela, inongo arazorik gabe, Landarbasoko leize-zuloko ahora iritsi ziren. Baserrira iritsi orduko barneko euskal mundutik ekarritako adaxka landatu zuten erreka ondoko lur emankorretan. Orduz geroztik, hamabost urte igaro dira, eta dagoeneko, biziaren zuhaitza handi samarra dago. Aurten, lehen aldiz, usain goxozko igali bitxi gorri bat eman du. Axularren bigarren liburuan aipatzen zen aro berrirako seinalea ote?